ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko urriaren 18a > Astelehena > VI. urtea > 294. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM

"Baserrien gainbeherak ekarri du elikagaien kalitatearen beherakada"

**Pedro Alberdi** EHNEko teknikaria > 8



**G2a** Mahai-futboleko trikimailuak ikasten > 29

**EKONOMIA** Fagor Etxetresnak lantegiak 'showroom' berria du > 02-03

**ESPAINIAKO GERRA** Memoriaren Autobusa Arrasate eta Aretxabaletara dator eguenean > 05

**FUTBOL DERBIA** Mondrak 3-0 menderatu zuen Aloña, lehia gutxiko partiduan > 22-23




ITXARONALDIA Jose Luis Elkororen emaztea, seme-alabak -euren bikotekideekin-, bilobak eta emaztearen anaia Martuteneko kartzelaren atarian, zain. ELKORO FAMILIA

**POLITIKA** > PRESOAK

# "Aita kartzelatik irteten ikustea oso polita izan da"

**TELEFONO DEIA** Jose Luisek berak deitu zuen etxera eguazten eguerdian aske utziko zutela jakinarazteko

**BIZITZEKO ILUSIOZ** "76 urte betetzeko bidean, baditu bere gorabeherak, baina ondo dago fisikoki eta psikologikoki"

**ANIZTASUNA** "Aitarentzat oso garrantzitsua izan da bere alde askotariko pentsamoldeetako jendea batu izana" > 04

**ARETXABALETA** > ARKUPE

## Ba! bertan behera gera daiteke

Kultura mugimendukoek arrisku hori ikusten dute, Arkuperen kudeaketa lehiaketara atera ezean. Aldiz, Udaleko Kultura batzordeak zaila ikusten du hori egitea. > 07

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**JENDARTEA** > MIKOLOGIA

## Bailaran ere atera dira perretxikoak

Eskoriatzako Luis Ezeizako neska-mutikoak basoan ibili dira asteburuan, udazkeneko lore preziatuen bila. Askorik ez-eta, ez zen samurra izan otarrak betetzea. Batutakoak sailkatu eta erakusgai ipini zituzten atzo. > 11



Bi mutiko guraso baten azalpenak entzuten. JOSETXO ARANTZABAL




Umeentzako liburuak opari. Nahi?

Zoaz 3. orrialdera


Kafe-makina berria ikus daiteke aretoan. MIRIAN BITERI


Hozkailu integragarriak edukiera handiagoa du. M.B.


Sukaldaria lanean. M.B.



Areto berrituaren harrera.

**EKONOMIA** > ETXEBIZITZAK

# Fagor Etxetresnak lantegiak 'showroom' berria estreinatu du

**INAUGURAZIOA** Arrasateko San Andreseko plantako erakusketa aretoa berritu dute, eta egubakoitzean inauguratu zuten

**LINEA GUZTIAK** Markako produktuen erakustokia da; markako negozio linea guztiak batzen dira bertan

**'SHOW COOKING'** Harreran 'show cooking' gunea jarri dute: sukaldaritzan zuzenean aritzeko aukera eskaintzen duen eremua


Joan den egubakoitzean inauguratu zuten erakusket

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Fagor Etxetresna Elektrikoetako bezero eta hornitzaile asko batu ziren egubakoitz eguerdian taldeak Arrasaten duen San Andreseko lantegian. *Showroom* edo erakusketa areto berritua ikusi nahi zuten guztiek; marka osatzen duten negozio linea guztietako produktuak ikus daitezke eremu berri horretan.

Inaugurazio ekitaldia Fagor Etxetresna Elektrikoetako zuzendari nagusi Fabian Bilbaoren hitzekin hasi zen. Eremua berritzeko egindako lana txalotu ostean, gogorarazi zuen aurrekoak 12 urte zituela, eta hortaz, berritzeko garaia zela. Haren esanetan, "konpainiak erreminta indartsu honen garapenean inbertitzearen alde egin du, horrek dudarik gabe, Fagor marka sendotzen lagunduko baitu, berritasunen eta berrikuntzen alde egiten duen konpainia baten erakusleiho izateaz gain".

> **Karlos Argiñano sukaldariak telebista saiorako erabiltzen duen sukalde pertsonalizatua dago erakusketa aretoan**

> **Taldeko zuzendari nagusia zein aretoaren diseinuaz arduratu direnak pozik azaldu ziren emaitzarekin**

Azken horren harira, areto berrituan aurki daitezkeen hainbat berrikuntza aipatu zituen; tartean, Karlos Argiñano sukaldari ospetsuak telebista programarako erabiltzen duen sukalde pertsonalizatua eta *show cooking* delakoa edo sukaldaritzan etengabe aritzeko aukera ematen duen espazioa. Azken eremu horretan zain zegoen Xabi sukaldaria, hitzaldien tartea amaitzen zenean txangurruz betetako krepeak eta onddo-rissotoa gertatzen hasteko.

**ESPAZIO EREMUAK**

Jarraian, erakusketa areto berrituaren diseinuaz arduratu den Zorrozua enpresako Luis Zorrozuak hartu zuen hitza. Emaitzarekin pozik geratu dela nabarmendu zuen lehenik, "ustekabeko areto berria eta modernoa" lortu dutelako, markaren betiko izaera abangoardistari erantzunez; horren harira, aurreko *showroomak* zuen eremu gardenekin hautsi egin dutela oraingoan, eta produktuen arabera sailkatutako espazio eremuak jarri dituztela azaldu zuen.

**800 METRO KOADRO**

San Andreseko plantan dagoen areto berriak 800 metro koadro inguru ditu, eta hainbat giro birsortzen ditu, giro hurbilak eta etxekoak, non markako negozio linea guztiak batzen diren lehen aldiz. Hain justu, linea zurian, altzarietan, etxetresna txikietan, zaintza pertsonalean, sukaldeko tresneria profesionalean eta

---

**Fabian Bilbao** > Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusia

## "Sukalde handi honetan interakzioa bilatzen dugu"

**M.B.** > ARRASATE

**Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusi Fabian Bilbao Goienako hedabideekin izan zen egubakoitz eguerdian, *showroom* delakoaren gaineko azalpenak ematen.**

**Zelatan erabaki duzue Arrasateko San Andreseko plantako erakusketa aretoa berritzea?**

Espainian lehenengoa izan da, beste fabrikatzaileek ez dute horrelakorik. Aurrekoak 12 urte zituen eta, hortaz, berritzeko garaia zela erabaki genuen, bereziki berrikuntzak eta gama berriak erakusteko.

**Areto txukuna daukazue. Pozik emaitzarekin?**

Oso pozik nago. Areto hau beti izan da guretako atxiki bat bezeroak ekartzeko eta eurekin harreman estua edukitzeko. Azken urteotan asko erabili izan dugu *showroom* delakoa. Eta orain, gainera, bestelako zerbitzuak gehitu dizkiogu; tartean, *show cooking* delakoa sartu dugu, hau da, sukaldaritzan etengabe aritzeko aukera eskaintzen duen eremua. Sukalde handi honetan interakzioa bilatzen dugu. Horrek jokoa emango digulakoan gaude; bezeroari erakutsi baino gehiago ukitzea eta produktuekin interakzio hori izatea erraztu nahi diogu.

***Show cooking* eremuaz gain, bestelako berrikuntzak ere egongo dira areto berrituan?**

Bai, hala da. Produktuetan berrikuntza asko ditugu gaur egun. Labe, plaka eta sukaldeko gailuen gama berria sortu dugu eta hemen ikus daitezke. Esaterako, indukzio-plaketako azken berrikuntzak ditugu eta baita orain arte atera izan ditugun labe pirolitiko onenak ere. Hozkailu integragarrietan ere berrikuntza interesgarriak daude, edukiera gehiago dute horiek. Gainera, garbigailu berriak ateratzekotan gaude, hemendik gutxira 9 kiloko edukiera izango dutenak merkaturatuko ditugu. Horiek dira berrikuntza azpimagarrienak.


M.B.

**Beti berritzen...**

Hori da gure lehentasuna. Berrikuntza arloan egindako esfortzua dela-eta, Espainian, Fagor Etxetresnak zortzigarren dago. Baliabide asko gabiltza eremu horretan jartzen, etorkizunean lidergoa mantendu dezagun. *Showroom* berri honetan berrikuntza horiek bezeroari erakusteko aukera dugu.



FAGOR ETXETRESNAK



Sukalderako tresneriak toki esanguratsua du. FAGOR ETXETRESNAK



ta berria; bezero eta hornitzaile asko izan ziren bertan eta, beste batzuen artean, Luis Zorrozuak hartu zuen hitza. M.B.

domotikan markak dituen azken berrikuntzak aurki daitezke.

Esan bezala, inguru horretan *show cooking* kontzeptua sortu dute. Horretan, besteak beste, eskola magistralak, hitzaldiak zein formazio saioak eskaini nahi dituzte, neurri handi batean taldearen bezeroekiko harremanak eragingo dituztenak. Horren harira, Zorrozua enpresako kide Pedro Perezek azaldu zigun toki "bizia eta mugikorra" dela, momentu bakoitzaren beharretara egokitzen dena.

Harreran dago *show cooking*, horren eskumatara, ostera, sukalde berriak; eta ezkerretara etxetresna elektrikoak, handienak lehenik eta txikienak amaieran.

**ETXEKO GIRO PERTSONALIZATUA**

Zorrozuaren arabera, "arnasten den giroa espazioa etxe giroko ukituekin pertsonalizatzearen ondorioa da; hain zuzen ere, produktu horiei berez dagokien bizimoduaren ideia bat etengabe transmititzen digu etxe giro horren ukituekin, espazioa atseginagoa, erosoagoa eta hurbilagoa eginda". Azken horren harira, Perezek aipatu zuen ez zutela nahi etxetresna elektrikoen erakusketa merkataritza gune bat izango balitz moduan aurkeztea, eta altzariak sukalde denda moduan: "Eremu bakoitzak bere pertsonalitatea izan dezala nahi genuen". Azkenik, Bilbaoren arabera, "markak erabiltzaileen beharrei erantzun eta pertsonen ongizatea lortu nahi du".

Hizlarien azalpenen ondotik, erakusketa bertatik bertara ikusteko aukera izan zuten, baita erakusgai dauden produktuak eta horien detaileak ezagutzekoa ere.

**2009AN, 1.412 MILIOI EURO**

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba etxetresna elektrikoen bosgarren fabrikatzailea da Europan, eta Espainian %18,2ko merkatuko kuota dauka. 2009an, 1.412 milioi euro fakturatu zituen. Munduko 130 herrialdetan saltzen ditu bere produktuak, 12 marka komertzialen bitartez.

## INAUGURAZIOAN ERAKUSKETA IKUSTERA JOAN ZIRENEN IRITZIA



**Peio Balanzategi**
Iker Sukaldeak

"Oso gustuko dut ikusi dudana, gauza berri asko daude. Bezero moduan ondo dago horrelako areto bat, beti egoten da-eta zerbait dendan ez duguna eta edozein momentutan etor gaitezke".



**Pedro Perez**
Zorrozua enpresa

"Guk proiektua egin dugu eta atzetik esfortzu handia badago ere, oso gustura geratu gara emaitzarekin. Fagorren hornitzaileak gara, eta horri egokitutako lana egin dugu".



**Sorkunde Pagaldai**
Fagor Etxetresnetako langilea

"Harrituta geratu naiz erakusketarekin, aurrekoarekin alderatuta askoz modernoagoa da. Itxura oso ona ematen du, eta produktu asko ditu. Ez du erakusketa bat ematen, gertutasun ukitu bat du".



**POLITIKA** > JOSE LUIS ELKORO

# "Aita kartzelatik ateratzen ikustea oso berezia izan zen"

Senideek diote herriaren indarrari esker dagoela Jose Luis etxean

Ezarri dizkioten baldintza gogorrak ez dituzte muga moduan bizi oraingoz



Paulo eta Kristina Elkoro poza ezkutatu ezinik, aita etxean dagoela-eta. IRATI GOITIA

**A.B./G.A.** > BERGARA

"Ia sinistu ere ezin dugu egin aita etxean dagoenik, badirudi laino batean gaudela". Hitz horiekin azaldu zituzten Paulo eta Kristina Elkoro anai-arrebek aitarekin etxean emandako lehen orduak, barikuan GOITBn egindako elkarrizketan. Jose Luis bera ere egoera berri honetara ohitzen ari da oraindik: "Zortzi-hamar metro koadroko ziega batean egotetik etxean jendez inguratuta egotera alde handia dago. Nekatu ere egiten da azkenerako, baina emozio handiz bizi ditu uneok eta oso pozik dago", dio Paulok. "Aldaketa handia da eta denbora beharko du, baina lasai dago, jendearekin egoteko gogoz eta bizitzeko ilusio handiz", gehitu nahi izan du Kristinak. 76 urte betetzeko bidean, bere osasun egoera delikatua da, baina gertukoek kontatu digutenez ,"ondo dago fisikoki eta psikologikoki".

**AITAREN DEIA**

Jose Luis Elkorok berak deitu zuen etxera eguazten eguerdian, esateko egun horretan bertan edo, asko jota, hurrengoan, aske utziko zutela; baina horren berri inori ez emateko ere eskatu zien etxekoei, hala egin ezean arriskuan egon zitekeela ohartarazi ziotelako, serioski. Luzeak egin zitzaizkien ondorengo orduak, eguen eguerdiko 13:45 inguruan Jose Luis kartzelatik ateratzen ikusi zuten arte. "Oso berezia izan zen aita kartzelatik nola ateratzen zen ikustea, oso polita", azaldu digu Kristinak. Paulok kontatu digu atxilotu zutenean guardia zibilek esan ziotela "ez dakit zertarako daramazun maleta", esanez bezala laster aterako zela atzera ere, "baina inoiz ez dakizu zer gertatuko den", gehitu du.

**BALDINTZA ZORROTZAK**

Orkatilako bat jarri diote eta, horren bitartez, kontrolpean dute, une oro. Baldintza gogorrak dira: 08:00etatik 13:00etara bakarrik atera daiteke kalera, Bergaratik ezin da irten, astero joan behar da Martutenera sinatzera eta ezin du ez adierazpenik egin ez publikoki inon agertu. "Neurri oso zorrotzak dira eta suposatzen dut epe ertain-luzera hartuko dutela euren pisua, baina momentuz ez gara ari bizitzen muga horiek. Etxean dago eta hori zen helburua", dio Kristinak.

**AZKEN BISEAN BISA**

Elkorotarrak bat datoz jendearen partetik "sekulako laguntza eta babesa" jaso dutela esaterako orduan, eta diote aitak ere sumatu duela "berotasun" hori. "Aitak den dena jakin nahi izan du une oro. Azken bisean bisekoan, esaterako, bere aldeko kirol martxaren berri ematen pasa genituen bi orduak", kontatu digu Kristinak. Antolatutako ekintzek alderdi, kolore eta pentsamolde ezberdinetako jendea batu dutela ikustea oso garrantzitsua izan da berarentzat, Kristinak kontatu digunez. "Espero dugu aita bakean uztea betiko. Herriaren konpromisoak ekarri du etxera".

Aralar pozik azaldu da aske utzi dutelako, baina ezarri dizkioten baldintzak salatu ditu.

ESANAK

**"76 urte betetzeko bidean, baditu bere gora-beherak, baina ondo dago fisikoki eta psikologikoki. Bizitzeko ilusioz dago"**

**Kristina Elkoro** > Alaba

**"Ez genuen uste aitarekin hain krudelak izango zirenik. Espero dugu bakean uztea behin betiko"**

**Paulo Elkoro** > Semea

PLATAFORMA

## 31n, herri-bazkaria

"Oso pozik gaude Jose Luis Elkoro aske geratu delako; pozgarria da etxeko goxotasunean ikustea berriz ere", nabarmendu digute Jose Luis Elkoro Libre Plataformakoek. Datorren asteburuko iragarritako martxa bertan behera geratu da, eta herri bazkaria antolatu dute hilaren 31rako. Pilotalekuan izango da eta espero dute 500 bat lagun batzea. Plataformaren etorkizuna erabakitzeko, bilera bat deituko dute.

**HITZARMENA**

# Elkarlana sendotzeko batzordea eratu dute

Euskaltzaindiak eta MUk lankidetza hitzarmena sinatu berri dute

**T.M./M.A.** > ARRASATE

Hitzarmen honi esker, batzorde iraunkor bat sortuko dute MUk eta Euskaltzaindiak. Hala, ikerketetan elkarlanean arituko dira eta Euskaltzaindia Mondragon Unibertsitatearen aholkulari ofiziala izango da euskara gaietan. Era berean, onuragarria izango da Euskaltzaindiarentzat ere, MUk lagunduko diolako teknika eta zientzia gaietan.

**HITZARMENA**

Elkarlanean, ikerketa ondareak erabili eta proiektuak burutuko dituzte. Argitaratzen dituzten liburuen elkartrukea ere egingo dute. Mondragon Unibertsitatean arlo tekniko eta zientifikoan egiten den lana ikusita, onuragarria izango da hori Euskaltzaindiarentzat gai horien inguruan lan egiten duenean. MUk euskararekiko duen konpromisoa ere berretsi egiten du sinatutako agiriak.

Bi erakundeen arteko lehen fruitua urtea amaitu aurretik iritsiko da: Arantza Ozaeta ikaslearen doktorego tesia argitaratuko dute.



Bilbon sinatu dute agiria. M.U.





Julia Monge arrasatearra. JOSETXO ARANTZABAL

**Julia Monge** > Debagoieneko Fusilatuen eta Lagunen Batzordea

# "Debagoieneko fusilatuak Espainiako gerran omenduko ditugu eguenean Aretxabaletan"

EDU MENDIBIL > ARRASATE

**Zapatuan Memoriaren Autobusa abian jarri zuten Ondarroan eta azaroaren 6ra bitartean memoria historikoarekin zerikusia duten Euskal Herriko herri garrantzitsuenetatik igaroko da. Eguenean, hilaren 21ean, Arrasaten eta Aretxabaletan geldialdia egingo dute. Bide batez, Debagoieneko fusilatuak Espainiako gerran ekarriko dituzte gogora Aretxabaletan eta jarraian *Malko gorriak* dokumentala aurkeztuko dute. Julia Mongerekin egon gara.**

**Nola sortu da Memoriaren Autobusaren ideia?**

Baleukok ekoiztu du Donostiako Zinemaldian aurkeztutako *Izarren argia* filma, frankismoan Saturrarango espetxean preso egon ziren emakumeei buruzkoa. Orain dela lau hilabete, Durangon biltzen garela jakinda, Lau Haizetara Gogoan koordinadorarekin jarri ziren harremanetan eta elkarrekin lan egitea proposatu ziguten. Haiek filmaz eta Memoriaren Autobusaz arduratuko ziren eta gu, berriz, geldialdia egiten zuten herri bakoitzean fusilatuei eta haien senideei omenaldia antolatzeaz.

**Zenbat lagun izango dira eguenean Aretxabaletan omenduko dituzuenak?**

Debagoieneko fusilatuak gogoratuko ditugu; 122 lagun dira denera: Arrasaten 53; Oñatin 22; Bergaran 15; Aretxabaletan 10; Elgetan eta Eskoriatzan zazpina; Gatzagan 6; eta bana Antzuolan eta Aramaion. Bakoitzaren izenarekin izar marka duen pegatina bana jarriko dugu autobusean. Aretxabaletako Durana kalean, plazaren ondoan izango da omenaldia, 18:00etan. Bertsolariak eta kantariak ere izango dira bertan. Jarraian, esan bezala, *Malko gorriak* dokumentala aurkeztuko dugu Zaraia aretoan, 19:30ean. Arrasaten ere omenaldia egitea pentsatu genuen hasieran, baina ezinezkoa gertatu da logistika arazoengatik; edozein modutan, Memoriaren Autobusa eguen eguerdian Arrasaten izango da.

**Lau Haizetara Gogoan koordinadoran dabil zuen batzordea.**

Halaxe da, bai. Memoria historikoa lantzen dugun 16 talde gaude koordinadoran sartuta. Atzo, astelehena, orain dela 74 urteko urrian Hernanin fusilatutakoei omenaldia egin genien. Orduan 200 lagun fusilatu zituzten Hernanin, tartean Debagoieneko 19 lagun.

> **"Debagoieneko fusilatu bakoitzaren izenarekin izar markako pegatina jarriko dugu Memoriaren Autobusean"**
>
> **"Lau Haizetara Gogoan koordinadoran 16 talde gaude sartuta"**

**Zertan zabiltzate orain batzordean lanean?**

Altxamendu faxistaren biktimekin gertatutako argitu gabeko auzia da oraindik. Memoria historikoa osotasunean egin behar dela uste dugu, egia jakin arte. Hori lehen pausoa izango litzateke justizia egiteko, errudunak epaitzeko, kaltearen ordaina emateko, berriro halakorik ez gertatzea bermatzeko. Erakundeekin harremanetan gaude ea zer egin daitekeen aztertuz, baina ez da erraza proiektuak aurrera ateratzea.

Aranzadiren erakusketa eta Iñaki Egañaren hitzaldia izango dira azaroan Kulturaten eta bi dokumental aurkeztuko ditugu azaroan zehar: Aretxabaletakoa eta *Gerra zibila Euskal Herrian. Gerra eta errepresioa Elgetan.*

## 'Malko gorriak. Gerra Zibila Euskal Aretxabaletan' dokumentala salgai eguenean

Intxorta 1937 kultura elkarteak egindako eta Arteman Komunikazioak enpresak ekoiztutako lana da *Malko gorriak. Gerra Zibila Aretxabaletan* dokumentala. Jose Ramon Intxauspe aretxabaletarrak egin du gidoia, eta 1931ko apirilean monarkiaren erorketarekin eta Errepublikaren aldarriarekin hasten da kontakizuna. 35 minutuko iraupena du dokumentalak. Julia Mongeren hitzetan: "Hiruzpalau aldiz ikusi dut eta garai hartan emakumeek zeukaten rola islatzea baino ez da falta agian. Edozelan ere, Filmotekako irudiak ere badira tartean eta bitarteko gutxirekin lan duin eta hunkigarria egin da". Egueneko emanaldiaren ostean dokumentala eskuratzeko aukera izango da, Zaraia aretoan bertan, 12 euroren truke.

**etxeko leihotik**



**Iker Barandiaran** > ibarandiaran@goiena.com

## Denetatik izatetik ezer ez edukitzera

Ni bizi naizen etxeko leihotik ez dut jendea idazten ikusten. Egia da gero eta gutxiago idazten dela, sakelako telefonoen mezuak oso motzak izan ohi direlako. Eta ziur boligrafo bakarrarekin marraztu daitezkeela tarteka paperean eta eskuz, nik bezala, idazten dutenak. Seguruenik denbora luzea da gure gertukoek zer letra mota izango duten antzematen ere ez dakigula; salbuespen batekin: espetxean daudenak. Halabeharrez hala komunikatu ohi dira horietako asko, eta elkarri idazteko praktika *ezohiko* hori probatu behar.

Jira horretan jarraitzen badugu, poliki-poliki boligrafoak ere merkatutik desagertzen joango dira. Horren bidean daude, dagoeneko, erlojuak, kalkulagailuak, linternak, iratzargailuak, agendak, diskoak, egutegiak, irrati aparailuak, grabagailuak eta beste asko; zokoratzeko bidean. Sakelakoan denetatik daukagu, nahiz eta askotan erdizpurdikoa izan.

> **"Gaur egungo lanbideak nola-halakoak dira; espezializaziorik ez dago"**

Gaur egungo lanbideak ere nola-halakoak dira; benetako espezializazioa ez da existitzen. Orain gutxi elkarrizketatu dudan margolari batek kontatu zidan gaur egun edozeinek uste duela, nahiz eta berori fundamentuz ez ikasi edo landu, bere lanbide edo zaletasuna menderatzen duela. Aldiz, iraganean, lanbidean aritzen zirenek horren artisauak zirela: sekretu guztiak jakiteaz gain, asko mimatzen zutela egiten zutena.

**> Jose Luis Elkoro askatu dutela jakin berri dut hau idazterakoan. Bazen ordua! Eta, bide batez, txalotu gurako nuke bergarar askok berau askatzeko erakutsi duten ahalegin sutsua. Jende asko inplikatzeaz gain, irudimena landu dute.**

**> Asier Agirre Aramaioko alkatea zigortu izana demokraziaren oinarriaren kontra doa. Herritarrei galdeketa egitea uzteagatik ezin da inor epaitu. Lotsa apur bat balego, alderdi guztietako ahotsek altxatu beharko lukete hori salatzeko.**

**KOMUNIKAZIOA** > GOIENA TELEBISTA

## Eskoriatzan Telesko bidez ikusten da GOITB

Eskoriatzan 39. kanalean sintoniza daiteke Goiena Telebista

E.M. > ARRASATE

Eskoriatzan Telesko kable sarearen bitartez Goiena Telebista ikus daiteke dagoeneko. Hain zuzen ere, 39. kanalean sintoniza daiteke GOITB.

Eskoriatzarrek telebista kable bidez jasotzen dute; Teleskoren kable bidez edo Euskaltelekoaren bidez. GOITB Lurreko Telebista Digitalean (LTD) ikusten hasi zenetik, eskoriatzarrek ezin izan dute ikusi GOITB Teleskoko kable bitartez; bada, Teleskok hainbat egokitzapen egin behar izan ditu bere antenan Goiena Telebistako seinale digitala jaso eta kablera sartzeko.

**DEBAGOIENEAN, 52. KANALEAN**

Gogoratu behar da Debagoieneko gainerako herrietan Lurreko Telebista Digitalean (LTD) ikusteko 52. kanalean ikusten dela GOITB.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**ZERBITZUAK** > ARETXABALETAKO ARKUPE

# Ba! kultur mugimendua bertan behera gera daiteke

Epe motzean aurrerabiderik izan ezean, hala gertatu daitekeela azaldu digu koordinatzaileak

**GOIATZ ARANA** > ARETXABALETA

Ba! aretxabaletarren kultura mugimenduak bi urteotan egindako lana ezagutzera emateko helburuarekin, BerBa! ekitaldia egin zuten bariku arratsaldean herriko plazan: erdi-erdian eserita eta aretxabaletarren aurrean, elkarrizketa egin zioten Beñat Zamalloa koordinatzaileari.

Ba! mugimendua, herritik herrira eta aretxabaletarren helburuetan oinarrituta, kulturgintzan eragin gura duen mugimendu moduan definitu zuen. Zamalloaren esanetan, "gaur egun irizpide barik antolatzen dira ikuskizunak eta irizpideren bat baldin badago, hori ekonomikoa da, ez herrian edo kulturan oinarritutakoa". "Ezer ez izatetik zerbait izatera pasa gara, baina kontua da zerbait hori nolakoa den eta nolakoa izatea nahi dugun. Ez gatoz bat kultura ulertzeko modu kontsumitzaile horrekin", gaineratu zuen.



Beñat Zamalloa Miren Manias kazetariaren galderei erantzuten, jendaurrean. J.A.

**AUTO-KRITIKA**

Ba! mugimendutik azaldu zutenez, prozesu honetan "herritarrak aktibo bat" izan behar dira, "arazoa herriarena" da eta horregatik da garrantzitsua eurekin harreman zuzena izatea. "Aurretik ez dugu hala egin, behar bada, eta hori izan da gure akatsetako bat. Baina hemendik aurrera inoiz baino herritarragoak izango gara", adierazi zuen.

**UDALARI ESKAERA**

Beñat Zamalloaren hitzetan, Udalak hausnartu egin beharko du honen guztiaren inguruan: "Orain arte talde eragile txiki moduan ikusi bagaitu ere, azken asteko ekimenek argi erakutsi dute herritarron mugimendu bat garela". "Ezezkoak izaten bukatzen duten baiezko gehiagok ez digute balio. Negoziatu dezala serio Ama-Lur enpresarekin –Arkupe kultura etxearen orain arteko kudeatzailearekin–. Soluzio errealista bat behar dugu".

Arkuperen kudeaketa lehiaketara ateratzeko eskatzen du Ba! mugimenduak: "Gure helburua ez da Arkupe bakarrik, baina ez dugu onartuko bere kudeaketa enpresa pribatu baten eskuetan egotea. Epe laburrean lehiaketara ateratzea lortzen ez badugu, posible da Ba! bertan behera geratzea. Jendeak beste urtebetez itxaroteko esaten digu, baina neketsua da eta zaila izango da ilusio honi eustea".

**BARIKUKO EKITALDIA**

Aldarrikatzen duten ereduaren adibide gisa, Eñaut Zubizarreta txelo jotzaile aretxabaletarraren zuzeneko musikarekin hasi eta bukatu zuten ekitaldia.

INAXIO GARROK DIOENA

## "Pena litzateke Ba! desagertzea"

Aretxabaletako Udaleko Kultura batzordeburuaren esanetan, Arkuperen kudeaketa lehiaketara ateratzeko aukera bakarra dago baina "garestiegia" da: "400.000 euro ordaindu beharko genizkioke Ama-Lurri –urteko kudeaketara bideratzen den diru kopurua– eta hori ezinezkoa da". Lehiaketa datorren urtean deitzea ez du baztertzen. Bien bitartean, Udala eta herriko kultura eragileak elkarlanerako bidean jartzeko batzorde anitz eta irekia osatzea proposatzen du eta Ba! mugimendua bertan egotea: "Pena litzateke Ba! desagertzea; denak gara beharrezkoak". Ba!-ren eskakizunekin bat egindako elkarteak bilera batera deituko ditu, berak esateko duena ere zuzenean entzun dezaten. Eguaztenean izango da, 19:00etan, Arkupen.

> OSASUNA

### Bi aste barru bukatuko da gripearen kontrako txertatze kanpaina

Duela ia hilabete jarri zuten martxan gripearen kontrako txertatze kanpaina –irailaren 20an–, eta urriaren 31n bukatuko da.

Gripea infekzio-gaixotasuna da eta, edonork harrapa dezakeen arren, bereziki arrisku taldeei txertoa hartzeko gomendioa egiten diete Debagoieneko Ospitaletik. Arrisku taldeetan daude: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta gaixo kronikoak –biriketako, bihotzeko, gibeleko edo giltzurrunetako gaixotasunak dituztenak–.

Interesatuek anbulatoriora edo gertuen duten osasun zentrora jo dezakete. Medikuek zentroan bertan jartzen dute txertoa. Beste bi astez izango da horretarako aukera.

> GERTAERA

### Bi atxilotu, lapurtutako auto batekin istripua izan eta gero

Ertzaintzak 19 eta 20 urteko bi mutil atxilotu zituen Antzuolan, eguenetik egubakoitzerako gauean. Prentsa oharrak jasotzen duenez, gazteok lau autoren lapurretan parte hartu zuten Billabona, Elgoibar, Bergara eta Antzuolan; era ausartegian gidatu zituzten; istripua izan zuten horietako batekin, GI-632 errepidean; eta gidariak ez zuen gida-baimenik.

Istripuaren ondorioz, gidaria –20 urteko gaztea– harrapatuta geratu zen auto barruan eta suhiltzaileek atera behar izan zuten. Eskualde ospitalera eraman zuten, zaurituta, eta uko egin zion droga eta alkohol probak egiteari. Ertzaintzak errekuperatu ditu lapurtutako lau autoak.

**ENPRESA** > IKERKUNTZARAKO HITZARMENA

# Makina-erremintaren arloa indartzeko akordioa

Hitzarmena Fagor Arrasatek, Mondragon Unibertsitateak eta Konikerrek sinatu dute, ezagutzak batu eta partekatzeko asmoz

**I.G./M.A.**> ARRASATE

Akordioarekin, irakaskuntza eta enpresa uztartu nahi dira. Fagor Arrasateko zuzendari Jose Maria Balzategik nabarmendu duenez, "enpresa eta unibertsitatearen arteko elkarlana beharrezkoa da arrakasta lortzeko". Makina-erremintaren alorrean ikerketa zientifiko eta teknologiko bateratua sortzea da helburua; baita unibertsitatearen eta enpresaren arteko hurbiltasuna ere. Hala, giza baliabideak eta azpiegiturak partekatuko dituzte.

Elkarlan honen bitartez, hiru ikerketa talde osatuko dira, 15 kiderekin. Koniker Zentro Teknologikoko eta Fagorreko kideak, eta Mondragon Unibertsitateko irakasle zein ikasleak izango dira taldeotako partaideak.

**IKERKETAK**

Hitzarmenak iraupen mugagabea du eta bi arlotan egingo dira ikerketak: batetik, asmoa da material mekanikoen nekea txikitzeko, diseinuzko irtenbideak bilatzea; eta bestetik, txapa metalikoen itxuragabetze plastikoen inguruan ezagutza garatzea, txapak izango duen jarrera aurrez ikusi eta modelatu ahal izateko.

Akordio hau "etorkizuneko ikertzaileak gaitzeko, trebatzeko eta berrikuntzarako dinamika sortzeko giltzarria" izango dela nabarmendu gura izan dute sinatzaileek.

Bestalde, hitzarmen hau ikerketaren eta garapenaren aldeko apustua dela ere gaineratu dute. Etorkizunean, ikertzaileen kopuruak gora egingo duen ustea berretsi egiten dute, gainera.



Akordioa sinatu duten hiru aldeetako ordezkariak. IRATI GOITIA

Baserriak bizi duen krisia dela-eta, horri irtenbidea eman guran kontsumo taldeak sortu dira azkenaldian. Gurean, hiru kontsumo talde daude dagoeneko: Arrasaten bi eta Aramaion oraintxe sortu berria dena. Aurrera begira, Bergaran eta Oñatin ere kontsumo taldeak sortzeko lanean dihardute. Talde horiek egiten duten lana azaldu digu Pedro Alberdik.

**Pedro Alberdi** > EHNEko teknikaria

# "Baserrien gainbeherak ekarri du elikagaien kalitatearen beherakada"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Basherri Gipuzkoako kontsumo taldeen topagunea da –*basherri.wordpress.com*–. Taldeko kideek, astero, sasoiko produktuz osatutako saskia jasotzen dute etxean. Baserritarren eskutik zuzenean, bitartekari barik.**


Pedro Alberdi, EHNEko teknikaria. GOIENKARIA

**Nekazaritzak bizi duen egoerari erantzuna emateko sortu dira elkarte horiek?**

Azkeneko hamarkadetan baserri mundua beheraka joan da. Nekazaritza-enpresa handiak hasi dira baserritarren merkatuan sartzen eta baserritarrak jokoz kanpo geratu dira merkatu global horretan. Gainbehera horrek ekarri du baserritarren beherakada eta baita elikagaien kalitatearen beherakada ere.

Oso zaila da kalitatezko produktuak topatzea gaur egun. Hortaz, horren aurrean jendea erantzuten hasi da. Talde horien bitartez kontsumitzaileak zuzenean erosten dio baserritarrari. Azken finean, bitartekariak merkatua kontrolatzen du eta baita ekoizleen lana ere.

**Zein da kontsumo talde hauen filosofia?**

Berreskuratzea da filosofia; nekazarien aldetik berreskuratzea jakinduria, bertako baliabideekin ateratako barazkiak eta elikagaiak lortzeko, merkatuetan erosi gabe. Kontsumo aldetik, bestalde, da berreskuratzea gertutasuna baserriekin, gertutasuna naturarekin, kalitatezko produktuekin... Konfiantza da guretako zigilua.

Modan dauden zigilu ekologiko horietatik aldendu egin gura dugu. Azken finean, zigilu horiek nekazaritza ekologiko industriala dute atzean. Hori baserritarrendako ez da ona, ezin dutelako kanpotik datozen produktu horiekin lehiatu; ezin dute, eta ez dute nahi.

**Nekazarien egoerari irtenbidea emateko modua da kontsumo talde horien lana?**

Bai, noski. Gaur egun esan daiteke ez dagoela baserritarrik, %90 galdu da. Geratzen direnak dira industriak, elikagai jakin bat sortzen duten industriak. Hortaz, geratzen diren baserritar gutxiak mantentzeko balio dute elkarte horiek, eta baita baserritar berriak sortzeko ere. Merkatuan ezin daitekeenez lehiatu, era bakarra da aliantza bat sortzea herritarren eta baserritarren artean. Otarrearen formularen bitartez lortzen duguna da aukera bat ematea gazte bati baserrian jarri eta baserritik bizi ahal izateko.

**Gaur egun baserritarrak eta herritarrak elkar daitezkeen beste leku bat azoka da, baina hura ere gainbehera dago.**

Orain arte merkaturatze modu tradizionala azoka izan da. Astean behin egin izan da eta horrela funtzionatu du mendetan. Baina gaur egun gizartea dagoen moduan egonda jendea ez da joaten azokara; ez bakarrik astirik ez daukalako, baita ohitura galdu delako ere.

Kontuan hartu behar da baita ere baserritar ugari egunero egoten direla azokan; hortaz, azokan badaude ez dute denborarik baserrian egoteko. Erosi egiten dute, eta gero hura saldu. Konturatu dira samurragoa dela erostea ekoiztea baino.

FILOSOFIA

**"Berreskuratzea da filosofia; nekazariek jakinduria berreskuratzea"**

AZOKA

**"Orain arte, merkaturatze modu tradizionala azoka izan da"**

GAZTEAK

**"Gazteak interesatuta daude baserrian sartzeko, baina lurra lortzea zaila da"**

Hemen ez, baina Donostian merkatuan dauden baserritar askok ez dute eurek ekoizten, erosi egiten dute.

Hori da kontu bat eta bestea da kontsumitzaileek ohitura galdu dutenez ez dietela bermea ematen baserritarrei euren produktuak saltzeko. Horren alternatiba da zuzeneko harremana sortzea.

**Zein da nekazaritzaren egoera gurean?**

Egoera oso larria da; baserritarrak desagertzear daude. Gainera, bailara honetan potentzia handia dago industria arloan, baina nekazaritzan oso gutxi bizi dira honetatik. Eta bizi direnek, beste aukerarik ez dutelako izan, eredu oso intentsibo eta industriala ezarri dute nekazaritzatik bizi ahal izateko.

Adibidez, lur bako nekazariak daude; hau da, hidroponiko deitzen dena da. Tomateak edo letxugak landatzen dituzte sakotan. Baserritar gutxi daude eta daudenek modu intentsiboan ekoizten dituzte kalitate eskaseko produktuak. Bi edo hiru produktu ekoizten dituzte kantitate oso handietan, baina kalitate txikian.

**Kontsumo taldeak gero eta gehiago dira.**

Bailaran lehenengoa Arrasatekoa izan zen. Nik ezagutu nituen kasualitatez Askazibarreko baserritarrak eta baita herritar talde bat kontsumo taldea sortzeko gogoarekin. Hortaz, harremanetan jarri nituen. Talde hori iaz maiatzean sortu zen.

Gertatzen dena da taldean parte hartu gura zuen jende gehiago zegoela. Horrelako kasuetan talde berri bat sortzen da beste baserritar batekin. Zulueta baserriko Gaizka Olaberrieta hasi zen; beste 15 lagun hartu zituen.

Aramaion orain sortu berri da taldea eta Bergaran eta Oñatin lanean dihardute.

**Bergaran, Udalaren ekimen baten bitartez azoka biziberritu eta bertako produktuak sustatu nahi dituzte.**

Bai; datorren astean bilera bat dago –urriaren 21ean–, herritarrei adierazteko nola funtzionatzen duen horrelako talde batek. Bergarako kasuan, kontsumitzaile taldea badaukagu eta orain topatu gura duguna da baserritarra. Eskaera horri erantzun ahal izateko baserritar bat edo bi topatu beharko lirateke.

**Baserritarrak topatzea ez da samurra izango.**

Bai, hori da daukagun arazoetako bat. Ez dago baserritarrik; eta, era berean, horrelako taldeek balio dute baserritar berriak sortzeko. Hori da gure apustua eta etorkizuneko lan handiena.

**Zelako arazoak dituzte gazteek lurra eskuratzerakoan?**

Jendea badago interesatuta baserrian hasteko; baina arazo handiena lurra izaten da. Lur onak eta nekazaritzarako lur aberatsak gero eta gutxiago daude. Bailarako lur onak azpiegitura, industria eta etxeetarako bideratu dira. Geratzen diren lurrak oso garestiak dira; lur horien jabeek esperantza dute egunen baten beste zer edo zer pasako den... Ez da bakarrik lurra, baserria ere oso garesti dago eta egokiena baserrian bizi izatea da.


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada
giro!
Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Anduaga Jatetxea
Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54
Dorleta
BAR DORLETA
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

## kale inkesta

# Zer iritzi duzu Kontsumo taldeen inguruan? Hartuko zenuke parte talderen batean?



**Mari Angeles Oregi**
Erretiratua
Bergara

Gai honen gainean zerbait entzunda neukan. Baserritarrei irtenbide bat emateko bide ona da. Ondo iruditzen zait ekimen hau. Horrenbeste komertziorekin konpetentzia handia dute eta lagundu egin behar zaie.



**Ana Suinaga**
Erretiratua
Bergara

Ez neukan horren berri. Aukera bat eman behar zaiela uste dut gure baserritarrei, azoka gainbehera dator-eta. Dagoeneko ikusten da hori. Egun, ez dute laguntza askorik eta dena etorriko zaie ondo aurrera egiteko.



**Justo Rodriguez**
Langilea
Bergara

Kontsumo taldeen berri baneukan baina oso gainetik. Jendeak kalitatezkoak diren hemengo produktuak jateko eta ezagutzeko aukera ona da. Hala ere, parte hartu aurretik gehiago informatu beharra daukat.



**Jesus Ruiz de Eguino**
Erretiratua
Bergara

Ordizian badago, eta orain Bergaran jartzen badute primeran. Nik etxean daukat ortua eta bertatik kontsumitzen dugu. Baserritarrari laguntzeaz gain, kontsumitzaileei erraztasunak ere ematen zaizkie.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ESKORIATZA

**> Herriko gaztetxoek erreka garbitu dute**

Eskoriatzar batek txalotu egin gura izan du eskolako gaztetxoen lana. Herritar guztiei zabaldutako deialdia izan arren, eskolako gaztetxoak bakarrik agertu ziren plazan: 26 lagun, guztira. "Ekimen bikaina dela uste dut, eta txalogarria gaztetxoen borondatea", adierazi digu irakurle horrek.

ARRASATE

**> Abiadura handiegia errepidean**

Guregana jo du Arrasateko bizilagun batek. Aprendiz kaletik San Andres kalerainoko errepide zatian autoak abiadura handiegian ibiltzen direla kontatu digu. "Ezbeharren bat gerta daiteke neurriak hartzen ez badituzte auto gidariek eta baita udaltzainek ere", salatu nahi izan du arrasatearrak.

OÑATI

**> Pintxo-poteoa noizko Oñatin?**

Oñatiar batek kontatu digu ekimen aparta iruditzen zaiola pintxo-poteoarena. Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Bergaran izugarrizko giroa sortzen duela-eta, Oñatin ere horrelako ekimen bat aurrera ateratzea gustatuko litzaioke. "Herriari bizitasuna ematen dio eta poltsikoarendako ere osasuntsua da. Ea Oñatiko ostalariak ere animatzen diren", azaldu digu. Herritarrek bat egiten badute pintxo-poteoaren alde, agian aurrera aterako litzatekeela uste du irakurle oñatiar horrek.

## usteak uste

**Mireia Bikuña**

# Irratiko zuzenekoak

Orain dela hiru urte utzi nuen irratiko lana Oñati Irratian. Paperera salto egin nuen, eta GOIENKARIAN hasi nintzen Oñatiko eta beste atal batzuetako albisteak idazten. Baina, hainbat aldaketa tarteko, kaskoak jantzi beharko ditut berriro ere eguztenetik aurrera, oraingo honetan Arrasate Irratian. Egubakoitzean lehenengo zuzenekoa egin nuen, eta urduri nengoen. Mikrofonoa zabaldu aurretik ahoa sikatu zitzaidan, baina konturatu orduko hasi nintzen prentsaren errepasoa egiten, eta ordu erdi egon nintzen berriketan!

Sentsazioak ikaragarriak izan ziren. Gustura egon nintzen, eta 14 urtetan Oñatin ikasitakoa ez dudala erabat ahaztu konturatu nintzen. Hilabete egongo naiz Arrasate Irratian, baina disfrutatzeko gogo handia daukat. Irratiko zuzenekoak txundigarriak eta bizi beharrekoak dira.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Belaunaldi berrientzako galderak

"Protesta egiten dugu ez dugulako gure gurasoak baino okerrago bizi nahi". Estudiante frantsesek arrazoi hau ematen dute erretiro legearen aldaketaren aurka kalera zergatik ateratzen diren azaltzeko. Pentsioen aldaketaren aurkako beste protesta egun jendetsu bat Sarkozy itotzen hasi da..."

El País > 2010-10-15



Amaren amak harrizko garbitegi batean garbitzen zituen arropak, etxetik laurehun bat metrora, uda eta negu ur hotzarekin. Amak garbigailu batean, xaboiarekin garbitu bai, baina eskuz aklaratzea eskatzen zuen batean. Nik arropak makinan sartzen ditut, eta lanean nagoen bitartean bakarrik garbitzen dira. Historia emakumeen aurrepausoetatik idatziko balitz, garbigailu automatikoa testuliburu guztietan agertuko litzateke aurrerakuntza guztien ikur. Horri eta beste txikikeria batzui esker, gure belaunaldiak gutxienez aurreko biak baino hobeto bizitzea lortu du.

Amonari sekulako aurrerakuntzak begitantzen zitzaizkion emakumeentzako prakak janztea, estudiatzea eta autoak gidatzea. Eta bikinia. Eta hori ez genuela antisorgailuez hitz egiteko aukerarik izan! (hamar seme-alaba erditu zituen). Ostera, erretiratu ostean pentsio bat jasotzea, hori ez zitzaion bitxia iruditzen, nahiz eta berak bizitza guztian kotizatu bariko lanetan ibilita, sekula ez zuen bere pentsiorik izan.

Bitxia da, gaur egun ezagutzen dugun erretiro-sistemak ehun urte bainoa gehixeago ditu, eta hala ere ez zaigu iruditzen berrikuntza bat denik gure bizitza aldatu duena, gaztetakoa zein zahartzarokoa. XX. mende hasieran ezarri zen sistema iraultzailea: lanean dabilen bitartean soldataren kopuru bat kentzen zaio langileari, zahar garaian pentsio bat bermatuta izateko. Mekanismo sinple bezain eraginkorra. Izan ere XX. mendeko kontua da belaunaldi bakoitza aurrekoa baino hobeto bizi izatea (gerra garaiak kenduta), eta honez gero denok barneratu dugu ongi-izatean egiten den aurrerakuntza gauza naturala dela, ez dagoela atzerapausurik.

**"Amona ez zuen harritu erretiratu osteko pentsioak"**

**"Agian ezin ditugu gurasoen eskubideak hartu eta gainera hobetu"**

Hala izan da orain arte, arropa garbiketaren adibidean moduan. Baina krisi garaiak galdera berriak ekarri dizkigu. Behar bada ez da axioma unibertsal bat belaunaldi berriak bere gurasoak eta aitonamonak baino hobeto bizi behar dutenik. Agian belaunaldi berri bakoitzak ezin ditu gurasoen eskubideak oinordetzan hartu eta gainera hobetu, horretarako lanik egin ez badu. Gure aiton-amonek umezaro gordina izan zuten; zahartzaroa, berriz, goxoa. Kotoietan hazitako belaunaldiei, ze udazken egokituko zaie, setazkoa?

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Mirian Biteri, Jokin Bereziartua, Ander Monedero **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**




**> ARRASATE**
Ahaztuta geratu diren altxor naturalak berreskuratu nahi ditu Besaidek **> 15**






**> BERGARA**
Auzoko ezagutzera ematen: etorkinei euskarara hurbiltzen laguntzeko programa **> 16**





**> OÑATI**
Eskaintza berria Arrikrutzen: ikastetxeentzako ekintza didaktikoak **> 18**


**ESKORIATZA** > AISIALDIA

# Luis Ezeizako neska-mutikoek perretxikoak ezagutzen ikasi dute

**PERRETXIKOTAN**
Zapatu goizean Arlabanen izan ziren 30 neska-mutiko perretxikoak batzen

**ERAKUSKETA**
Arratsaldean sailkatu ostean, domekan erakusketa jarri zuten plazako arkupetan



Perretxikoak topatzeko ezinbestekoa da geldiunetxoa egitea, hamarretako ederra egin eta indarrak hartzeko. JOSETXO ARANTZABAL

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Udazkenarekin batera, perretxikoak irteten hasi dira eta, urtero moduan, asko dira asteotan inguruko basoetan dabiltzanak, onddo, piñutela eta bestelako perretxiko preziatuak topatu nahian. Eskoriatza aldean ere horrelaxe ibili dira asteburuan. Luis Ezeizako Koldotxo gurasoen elkartearen eskutik, zapatu goizean Arlabango ingurunean ibili ziren 30 guraso eta neska-mutiko, hango pagadi, pinudi eta hariztietan topatzen zituzten perretxikoak batzen.

Batutako kopuruari dagokionez, goiza ez zen oso probetxugarria izan, perretxiko gutxi hartu zituzten-eta. Kontuan hartu behar da aurtengoa ez dela ari izaten oso denboraldi ona. Taldeak, dena dela, ederto pasa zuen eta, urtero moduan, geldiunea egin zuen hamarretakoa egiteko: bokata ederrak zituzten umeek; eta helduek, denetarik –baserriko sagarrak zituen batek eta txorizo bokata beste batek–. Batzuek zein besteek indarrak berreskuratu eta perretxikoak topatzeari ekin zioten ostera, eguerdira arte.

**BASOAN NOLA IBILI**

Jasotakoa larregi izan ez bazen ere, pozik jaitsi ziren Koldotxokoak herrira, helburua bete zutelako. Guraso elkarteko presidente Nestor Aranaren arabera, "perretxikoak batzeaz gain, umeek ikastea nahi dugu; hau da, pinudietan ze perretxiko mota irteten diren jakin dezatela, eta berdin bestelako tokietan. Horrez gain, basoetan zelan portatu behar diren eta perretxikotara joateko ze material behar den erakutsi nahi diegu haurrei".

Bestalde, bazkaldu ostean, goizean basoan batutakoa sailkatzeari ekin zioten Luis Ezeiza ikastetxeko jantokian. Azken urteotan bezala, Durangoko Errotari mikologia taldekoak arduratu ziren zeregin horretaz, hainbat eskoriatzar eta arrasatearren laguntzarekin. Iluntzera arte ibili ziren horretan, eta 121 perretxiko mota sailkatu zituzten.

Azkenik, atzo, erakusketa egin zuten. Eguraldiak larregi lagundu ez bazuen ere, jende nahiko batu zen eguerdian plazako arkupetan. Helduek perretxikoei erreparatzen zieten bitartean, neska-mutikoak marrazten ibili ziren; horren harira, perretxikoen lehenengo marrazki lehiaketa antolatu zuten.

**40 PARTAIDE**

Lehiaketa 10 urteko Jokin Salidok irabazi zuen; bigarren, 5 urteko Laura Martin geratu zen; eta hirugarren, 3 urte baino ez dituen Iraia Gutierrez. Lehenak perretxikotan ibiltzeko bastoia eta labana irabazi zituen, eta beste biek, saski bana. Gainerakoen artean, margoak banatu zituzten. Guztira, 40 neska-mutikok parte hartu zuten lehiaketan, eta mendiko bizikleta proban lanean zeuden Gurutze Gorrikoek aukeratu zituzten marrazki irabazleak.

Koldotxo guraso elkartekoek oso balorazio positiboa egin zuten. Aranaren esanetan, "denboraldia oso ona izaten ari ez bada ere, parte hartzea handia izan da eta, hortaz, oso pozik gaude asteburuak emandakoarekin".



Gustura ibili ziren atzo eguerdian umeak perretxikoak margotzen. MIRIAN BITERI

**ARETXABALETA** > UDA-REN JAIALDIA

# Saiheskia, cava eta ardoa urteari ekonomikoki eusten laguntzeko


Bi gizonezko saiheski mokadua egiten, bete-betean. G.A.


Parrilla ondoan lanean aritu zirenentzat ez zen hotzik zapatuan. J.A.

## Jende dezentek egin zuen bat, zapatuan, UDAk herriko plazan egindako jaiarekin

**GOIATZ ARANA** > ARETXABALETA
Saiheski apur bat jan eta ardo edo cava trago batzuk egiteko eguraldi txarrik ez dago, baina asteburuko giroa bereziki aproposa izan da horretarako; zapatuan bertan fresko egin zuen eta barruak berotzen laguntzeko aukera ezin hobea izan zen. Barru eta kanpo ondo berotu zena saiheskia parrillan erretzen jardundako koadrila izan zen; jertse beharrik ez zen izan, ke artean!

**HELBURU BIKOTZA**
Aretxabaleta Kirol Elkartearen denboraldi hasierako jaialdia izan zen zapatukoa. Klubaren eta herritarren arteko harremanak sendotzeko eta diru apur bat ateratzeko egiten dute; aurtengoa laugarrena izan da. 2010-2011 denboraldia normal antzean hasi dute kirol ikuspuntutik, eta itxura txarrik ez dauka ekonomia aldetik, nahiz eta horretarako lan handia egin behar izan duten; hala esan digu UDAko zuzendaritza taldeko Juan Mari Enekotegik. Pozik zegoen zapatuan, jaia martxa onean zihoala ikusirik: 1.000 kilo saiheski erre zituzten eta bi euro t'erdiren truke saldu zituzten pintxoak, ardo edo cava tragoa barne. "Gaurkoarekin, gastuak ordaindu eta dirua irabaziko dugu", esan zigun; eta Enekotegi izanik klubeko diru kontuak eramaten dituena... zein hobeto bera baino hori esateko!


**Joserra Solaun**
Gordexola

"Ideia bikaina iruditzen zait horrelako ekimenak antolatzea. Bizkaitarra naizen arren, badut lotura Aretxabaletarekin eta beti laguntzen dut UDA".


**Jon Otxoa**
Aretxabaleta

"Ederra dago saiheskia, anoa bikaina eman digute, gainera! Horrelako jaiek herrian giroa jartzen dute eta beharrezkoak dira diru apur bat ateratzeko".


**Aitziber Uribarren eta Irati Cortes**
Aretxabaleta

"Ez gara oso cava zaleak, baina primeran ari zaigu sartzen. Saiheskia ere oso ona dago; beste aldi batzutan buzkantzak eta saltxitxak eman dituzte, baina nahiago dugu saiheskia! Futbolean, gustatzen zaigu jakitea UDAk zer egin duen".


Batzuetan sustatu egin ziren mamuak umeekin eta umeak mamuekin, baina ongi pasa zuten elkarrekin. J.A.

**BERGARA** > UMEENTZAKO KALE ANTZERKIA

# Munstroei ez zaie beldurrik izan behar!

## Patxistein, Burubiltxo, Piztitxu eta Bikoitz mamu txikiak amonarekin etorri ziren

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Egubakoitz arratsaldean ume eta gurasoz bete zen San Martin plaza. Oihulari Klown taldekoekin batera mamu txikiren batzuk joatekoak zirela-eta, hantxe batu ziren guztiak, haien zain. Eta noski, Patxistein, Burubiltxo, Piztitxu eta Bikoitz mamu txikiek ez zuten hutsik egin; amonarekin joan ziren, gainera.

Itxura beldurgarria izan arren, edozein ume txikiren modukoak direla erakutsi zuten: biberoiak baretu zituen gose zireneean eta txupeteak lo gura uneetan.



Arizmendiko umeek Ezkurtxo asko maite dutela erakutsi zuten zapatu arratsaldean.

MIRIAN BITERI

**ESKORIATZA** > EZKURTXOREN JAIA

# Herriko plazatik Mazmelara joan ziren zapatuan Arizmendikoak

## Ehun bat ume eta gurasok bisitatu zuten elizatea; jolasak eta txokolate-jana izan zituzten han

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Aurten Mazmela elizatea bisitatu dute Arizmendiko Jose Arana eta Almen guneetako haur eta gurasoek, Ezkurtxoren jaian. Antolatzaileen esanetan, ehun lagun inguru izan ziren zapatu arratsaldean elizatea bisitatzen.

Eskoriatzako plaza eta Mazmela arteko bidea autobusean egin zuten ume gehienek, batzuk gurasoekin batera autoan joan baziren ere. Ordurako zain zituzten jolasak: igelaren jolasa, soka, boloak eta eskiak, besteak beste. Umeek horrenbeste maite duten Ezkurtxo ere bueltaka zebilen handik. Jolasez gain, urtero moduan, ibilbidetxo bat prestatu zuten elizatean barrena; trenbide zaharrarena, hain justu ere.

**TXOKOLATE BEROA**

Jolasean ordubete inguru ibili ostean, berotan sartzeko unea heldu zen, momentuan egindako txokolate gozoarekin. Lanbroa ari zuen eta umeek nahiz helduek eskertu zuten esku artean zerbait beroa izatea. Poz-pozik itzuli ziren guztiak etxera.

UMEEK DIOTENA



**Leire Vadillo**

"Niretako joko onena igelarena da. Elizateei dagokienez, Bolibar eta Mazmela dira gehien gustatzen zaizkidanak".



**Lorea Pagaldai**

"Gehienetan etortzen naiz. Autobusean etorri eta arratsaldea ematen dugu jolasean. Eskia eta txokolate-jana ditut gustuko".



**Maddi Mondragon**

"Oso ondo pasatzen dut, jolasean ibiltzen gara eta Ezkurtxorekin ere egoten gara. Igelaren jokoa eta txokolate-jana ditut nik gustuko".



JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > GAZTEAK

# DJ jaialdiak ez zuen huts egin

Ehun nerabe inguru batu ziren joan den zapatu iluntzean Bergarako Zabalotegi aretoan, Jon Urbieta disko-jartzailearekin dantza egiteko. Irudiak ikusita ezin esan txarto ibili zirenik. Gehienek dantza egiteko aprobetxatu bazuten ere, beste batzuek nahiago izan zuten musika lasai entzun eta ondoko lagunarekin hitz egitea. DJ jaialdiak duen harrera ikusita, ekimen horrek jarraipena izan dezala erabaki du Udalak; hurrengoa urriaren 30ean izango da.



MIREIA BIKUÑA

**BERGARA** > UMEAK

# Ezin hobeto uretan jolasean

Umez bete zen zapatu arratsaldean Bergarako Agorrosin kirol gunea. 50 neska-mutiko inguru izan ziren Kirol Zerbitzuak antolatutako urjolasetan. Ezin hobeto pasa zuten guztiek. 8 urtetik beherakoak igerileku txikian izan ziren, gurasoekin batera; eta hortik gorakoak, igerileku handian. Azken horiek, behin eta berriro bota ziren ekimen horretarako jarritako txirristatik behera. Salto lehiaketa eta harrapaketa jokoak ere izan zituzten, besteak beste.

**En-medio** > Ibilgailu elektrikoen saltokia

# "Segway ibilbideak erakargarri turistiko gisa finkatzen hasi dira"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Ibarreko zenbait enpresa pribatu eta erakundek kalitate turistikoarekin duten konpromisoa saritu dute asteon Bergaran. Jaurlaritzako ordezkarien eskuetatik diploma jaso zuten. Sarituen artean dago Arrasateko En-medio enpresa. Eneritz Lezeta (Arrasate, 1979) oso pozik aurkitu dugu.**



Eneritz Lezeta saltzailea Loramendi kaleko saltokian duen segway batean igota. UBANE MADERA

**Segwayekin egiten duzuen lana da saritu dutena, ezta?**

Bai. Segwayak erabilita ibilbideak antolatzen ditugu, partikular zein enpresendako. Zerbitzu mota da saritu dutena: ibilbidea hasi aurretik ikastaroa egiten dugulako, erabiltzaileekiko segurtasun neurriak hartzen ditugulako (kaskoa…). Oso errekonozimendu handia da.

**Zelako ibilbideak egin daitezke segwayekin?**

Ordu eta erdiko ibilbidea dugu antolatuta. Udan egunero eta udazken-neguan asteburu eta jaiegunetan. Ibarraundi museotik irten (Eskoriatza), bidegorria hartu, eta bainuetxeko industrialdetik Urkulura igotzen gara; han bueltа bat ematen dugu; bezeroen arabera, mendien, auzoen edo baserrien gaineko azalpenak ematen ditugu. Kanpoko jendea harrituta geratzen da paisaiarekin. Beste ibilbide batzuk ere baditugu: segwayetan behin baino gehiago ibili direnendako Atxorrotzerako igoera eta oso aditu direnendako Hiruatxerakoa. Bestalde, enpresek eska ditzakete ibilbide konkretuak. Adibidez, Oñatin egin dugu ibilbide berezi bat, Sopelan…

**Zenbat balio du?**

45 euro pertsonako.

**Kanpoko jendea etortzen da?**

Bai. Opor garaian Espainiatik Euskadira datorren jende asko dator segway ibilbidea egitera hona. Eta Euskal Herri osotik ere etortzen dira: Bizkaitik, Gipuzkoatik, Arabatik… Izan ere, segway ibilbideen zerbitzua erakargarri turistiko moduan finkatzen hasita dago. Adibidez, Gasteizko Agrotravel bidaia agentziarekin hasi gara elkarlanean, turismo sostengarria bultzatzeko. Eurek ere eskaintzen dute gure zerbitzu hau. Atrapalon ere bagaude…

**"Espainiatik Euskadira datorren jende asko dator segway ibilbidea egitera gurera"**

**"Agrotravel agentziarekin gabiltza turismo sostengarria bultzatzen"**

**Saldu, baina, saltzen dira segwayak?**

Poliki. Partikularrendako kapritxoa da. Batez ere, zuzenduta daude udal edo enpresendako: biltegi handiak dituztenetan, segurtasun enpresetan, mezularitzakoetan… oso baliagarria da, distantzia handiak egin behar dituzten langileendako.

**Zein da prezioa?**

Hiru mota daude: hirietan ibiltzekoak (i2) balio du 6.195 euro gehi BEZa; todoterrenoak (x2) 500 euro gehiago gehi BEZa; eta gero, golfean ibiltzekoak daude.

**Segwayez aparte, beste aparailu elektriko batzuk ere badituzue dendan…**

Auto elektrikoak, bizikletak, rollerrak eta zapata saltokariak. Uztailean Euskal Energiaren Erakundea hasi zen dirulaguntzak ematen auto edo bizikleta elektrikoak erosteko. Eta hori asko igarri da, adibidez, bizikleten salmentan, bestela garestiak dira-eta.

**Zenbat?**

1.300 euro.

**Zeinek erosten ditu?**

Bizikleta garraiobide moduan erabiltzen dutenek; lanerako, adibidez. Eta gidabaimena galdu dutenek ere bai.

**OBRAK** > TRABA ARKITEKTONIKOAK

## 65.000 euro inbertitu gura dituzte herriko traba arkitektoniko gehiago kentzeko

Aurten, erdiguneko, Santa Teresako, San Andresko eta Musakolako hainbat puntutako trabak kenduko dituzte



Zebra-bideetan aldapatxoak ipintzen dituzte, bidea errazteko. GOIENKARIA

**U.M.** > ARRASATE

Oraingo astean edo hurrengoan adjudikatuko ditu Udalak traba arkitektonikoak kentzeko aurten egin gura dituen lanak.

Oraingo honetan, erdigunean (Jose Luis Iñarran), Santa Teresan, San Andresen eta Musakolan egingo dituzte lan horiek, 65.000 euro inbertituta.

Dirulaguntza eskatuta du Udalak lanok egiteko, baina ez dira erantzunaren zain geratuko. "Guk berdin-berdin egingo ditugu", eman du aditzera Moises Altunak, Obra eta Zerbitzu Saileko arduradunak.

**IA 390.000 EURO INBERTITUTA**

2005a ezkero dabil Arrasateko Udala urtero-urtero herriko traba arkitektonikoak kentzen. Eta kopuru ikusgarriak dira inbertitu dituenak. Guztiak batuta, aurtengoa barne, 388.000 euroko inbertsioa izango litzateke.

Zailtasunak dituztenendako, gurpildun aulkiekin edo umeen kotxeekin dabiltzanendako traba diren oztopoak kentzen dituzte.

**UDALA** > GOBERNUAREN BATZARRA

## Eroskiren eta Udalaren arteko hitzarmena aztergai

Zenbait dirulaguntza eskaera ere aztertuko dituzte Gobernuaren gaurko batzarrean

**U.M.** > ARRASATE

Udal Gobernuak gaur arratsaldean, astelehena, egingo duen batzarrean landuko duten puntuetako bat da Eroskiren eta Udalaren arteko hitzarmen sinadura, herri barruko autobus urbanoa dela-eta.

Kontua da Eroski Uribe auzotik Musakolara joan zenean autobusa ipini zuela, herriko bezeroei bidea errazteko.

Gero, berriz, Arrasateko Udalak urbanoa ipini zuenean, erabaki zuen egokiagoa eta eraginkorragoa izango zela bi erakundeek elkarlanean antolatzea autobus zerbitzu bakarra, biei zerbitzu emango ziena. Hala egin zuten, eta harrezkero, Eroskik dirulaguntza ematen dio Udalari zerbitzu horren truke.

Bada, orain, autobus urbanoaren kontratua aldatu delaeta, bien arteko hitzarmena berritu egin gura dute, eta horixe da gaurko batzarrean landuko duten puntuetako bat.

**DIRULAGUNTZAK ETA BESTE**

Horrekin batera, baina, bestelako gai batzuk ere mahai gainean izango dituzte udal agintariek gaurko batzarrean. Besteak beste, AED elkarteak eta Dirty Brothers eta Never Surrender musika taldeek egindako dirulaguntza eskaerak; Sexologia Zerbitzuak aurkeztu duen urritik abendura bitarteko egitaraua eta ur sarea kontrolatzeko sistemaren auditoria lanak eta sistema hori egiaztatzeko lanak.





Ezkerreko irudian, Zuazubiskar auzoko bizilagun bat eta Zubiaga, zikinkeria erakusten. Eskuman, koba barruan. JOKIN BEREZIARTUA



Montzon koba Mietz-Erreka elkartetik metro gutxitara dago. J.B.



Zubiagak eta Zuazubiskar iradokitzen duten norabidearen azpian dago koba. J.B.

**INGURUMENA** > GURE ONDAREA

# Ahaztu egin diren altxor naturalak berreskuratu nahi ditu Besaidek

Urriaren 23an Montzon izena duen haitzuloa txukunduko dute; auzolanean eta gaztetxoekin

Zikinkeria kentzeaz gain, Montzon eta herriko beste zenbait txoko ezagutarazi gura ditu Besaidek

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Besaide mendizale elkartea iraganean ahaztuta geratu diren Arrasate eta inguruko "altxor naturalak" berreskuratu guran dabil. Berreskuratu esaten dutenean, utzita eta zikin dauden txokoak garbitu eta herritarrei ezagutzera ematea esan gura dute. Horretarako, Besaideko zenbait kide harremanetan ari dira Udalarekin eta, ingurumenaren eta gure ondarearen aldeko ekimena denez, Udalak begi onez ikusten du. Azken helburua, Aitor Zubiaga Besaideko zuzendaritza taldeko kideak dioenez, bisitatzeko interesgarriak diren herriko txokoez osatutako bide sarea egitea litzateke. Esaterako, Monterron parkea abiapuntu hartuta, gugandik gertu dauden altxorrak zeharkatzen dituzten ibilbideak osatzea litzateke emaitza posible bat. Oraindik, baina, "lan asko" dago.

**LEHEN BISITA, MEATZ-ERREKARA**

Lehen helburua Meatz-Erreka auzoan dagoen Montzon kobazuloa txukuntzea izango da. Urriaren 23an joan gura dute eta haitzuloa auzolanean txukundu.

Halaxe azaldu du Zubiagak: "Montzoneko koba zikinkeriaz beteta dago eta hura garbitu gura dugu. Baina horrez gain, hemen koba bat dagoela ezagutarazi nahi dugu, jende askok ez daki-eta". Izan ere, dio Zubiagak, "oso kuriosoa" da Montzoneko koba: "Zelai batean kokatuta dago eta erreka pasatzen da erdi-erditik; horregatik da hain polita". Zikinkeriak, baina, kobaren edertasuna desitxuratu du: "Denetariko zikinkeria aurkitu daiteke: plastikoak, kristalak, metal puskak... Garbitzera joaten garenean, hilaren 23an, ikusgarria izango da aterako dugun kaka kopurua".

**BELAUNALDI BERRIEI IRAKASTEN**

Besaidek abiarazi gura duen ekimenak badu alde didaktikoa ere: "Haur eta gaztetxoek kalean, zakarrontzia ondoan izanda, zikinkeria lurrera botatzeko ohitura handia dute. Ea, bada, kontrakoa egitera animatzen ditugun", dio Besaideko kideak.

Horretarako, gaztetxo talde bat osatu dute lehen irteerarako; gehienak lagun eta gertukoen seme-alabak izango dira. Hala ere, deialdia irekia da erabat. Lan egin ostean bapo jateko aukera izango dute, Udalaren kontu.

ESANAK

**"Koban denetariko zikinkeria aurki daiteke; hilaren 23an aterako dugun kaka kopurua ikusgarria izango da"**

**Aitor Zubiaga** > Besaide mendizale elkarteko zuzendaritza taldeko kidea

**KULTURA** > ERAKUSKETAK EMAKUME TXOKOAN

## 7 emakume en movimiento elkarteko kideen lanak ikusgai

Josune Laka eta Gotzone Eluk zabalduko dute erakusketa, urriaren 25etik azaroaren 5era arte

**J.B.** > ARRASATE

Ondarroako 7 emakume en movimiento elkarteko kide diren Josune Laka eta Gotzone Eluk erakusketa zabalduko dute urriaren 25etik azaroaren 5era arte, Emakume Txokoan. Lakak ordenagailuz egindako koadro batzuekin osatutako horma-irudia jarriko du eta erakusketa ere *7 emakume en movimiento* deitu du. Azaldu duenez, feminismoaren aldeko erakusketa da, "emakume sortzaileak aldarrikatzeko murala". Bost metro luze izango da.

Bestalde, Eluk 13 argazki inguru erakutsiko ditu *Kresala eta garoa* deitu duen erakusketan. Eguenetan arratsaldez eta egubakoitzetan goizez bisitatu ahalko da.



Josune Lakaren '7 emakume en movimiento' erakusketaren irudia. GOIENKARIA

> TXATXILIPURDI

## Surf ikastaroa egingo dute gazte txokoek Zarautzen

Urtero moduan, surf ikastaroa egingo dute Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek. Zapatuan, urriak 23, egingo dute irteera Zarautzera eta, bertako surf eskolaren laguntzaz, kirol horren gaineko oinarrizko argibideak jasoko dituzte gaztetxoek. Gero, eguna bertan pasatzea da asmoa.

Izena eman gura dutenak Gazte bulegora edo gazte txokoetara joan beharko dira. Garibaitik irtengo dira, 09:15ean. Ikastaroaren prezioa da 12 euro.

**EUSKARA** > TOPAGUNEA

# Auzoko: etorkinei euskarara hurbiltzen laguntzeko programa

Ekimena ezagutzera emateko kanpaina abiarazi du Topaguneak, euskara elkarteen bilguneak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Auzoko programa jendarteratzeko kanpaina abiarazi du Topaguneak. Sei herritan abiaraziko dute, Orion, Zeanurin, Donostian, Berriatuan, Agurainen eta Bergaran. Kanpainaren barruan, besteak beste, hainbat kartel zintzilikatuko dituzte herrian barrena –ondoko irudiak karteletako bi–, munduko hizkuntzen izenekin, eta helburua da herritarrei ezagutzera ematea zer den Auzoko programa.

**ELKARTRUKEA OINARRI**

Hain justu ere, Topaguneak eta Uemak herri euskaldunetarako diseinatutako plana da Auzoko egitasmoa. Euskararen eremuetara hurbiltzen diren etorri berriei hizkuntzaren ikuspegitik egin beharreko harrera egituratzea du helburu.

Gure herrietara iristen den jende berria, askorendako ezezagunak diren lurraldetatik datoz eta hizkuntza eta kultura desberdinak dakartzate eurekin. Eta Topaguneko eta Uemako kideen ustez, elkartrukerako egoera asko sortzeko aukera eman du horrek. Hori horrela, egoera berri horri ahalik eta etekin handien ateratzen saiatu behar dugula ere uste dute, eta horretarako elkar ezagutu eta elkarrengandik ikasteko egoerak sortzea proposatzen dute Auzoko programaren bitartez.

Elkartruke hori lagunartean egin nahi dute, ahalik eta modu naturalenean. Horretarako, lagun taldeak sortu eta harreman berri horiek euskaraz eraikitzeko egoerak bultzatuko dituzte.

Horrekin guztiarekin, hiru helburu lortu nahi dituzte: hizkuntza aniztasunean, euskarari zentraltasuna ematea; desberdinen arteko hartu-emanak euskaraz izan daitezen tresna eta egoerak sortzea; eta herrietan bizi dugun aniztasuna argira ekarri eta elkar ezagutza eta elkartrukerako sareak sortzea.







Kanpainako karteletako bi. GOIENKARIA

**AUZOKO TALDEAK**

Auzoko programako lagun taldeak bi profil ditu: herritar euskaldunak edo *auzotarrak,* eta bestetik, ez euskaldunak edo a*uzokideak*.

Bada, *auzotar* zein *auzokideek* programan parte hartzeko deialdia egingo dute laster.

**EKONOMIA** > LANA

# Langabeziak gora egin du herrian irailean, azkeneko hilabeteetan ez bezala

Maiatzetik hona beheranzko joera bazuen ere, berriz egin du gora; azken bost urteetan ia bikoiztu egin da

**Langabezia datuak**

| | LANGABEAK | LANG. TASA (%) |
|---|---|---|
| Urtarrila | 751 | 10,47 |
| Otsaila | 777 | 10,83 |
| Martxoa | 774 | 10,79 |
| Apirila | 752 | 10,48 |
| Maiatza | 715 | 9,97 |
| Ekaina | 710 | 9,90 |
| Uztaila | 703 | 9,80 |
| Abuztua | 705 | 9,83 |
| Iraila | 738 | 10,29 |

ITURRIA: SEPE

**M.B.** > BERGARA

Langabeziak gora egin du irailean. Maiatzetik abuztura arte langabeziaren joera beheranzkoa bazen ere, irailean gora egin du berriz. Hori horrela, %10,29ko langabezia tasa dago orain herrian, edo, bestela esanda, 738 langabe daude herrian, urte hasieran zegoen antzera. Izan ere, urtarrilean 751 langabe (%10,47) zeuden Bergaran. Langabezia tasarik handiena otsailean izan zen, 777 langabeekin (%10,83), eta txikiena, berriz, abuztuan izan da, 705 langaberekin (%9,83).

Inguruko herriekin alderatuz gero, irailean Debagoieneko langabezia tasa handien zuen hirugarren herria zen Bergara, Antzuolaren (%11,21) eta Arrasateren (%10,71) atzetik. Tasa txikiena Leintz Gatzagak zuen (%6,02). Debagoieneko tasari dagokionez, %9,78 zen irailean.

**IA BIKOIZTU EGIN DA**

Azkeneko bost urteotan ia bikoiztu egin da langabezia tasa herrian. Hona hemen iraileko datuak: 2006an, 399 langabe zeuden (%5,56); 2007an, 390 (%5,54); 2008an, 439 (%6,12); 2009an, 719 (%10,02); eta 2010ean, 738 (%10,29).




AMAIA TXINTXURRETA

# Miguel Angel Salinasek Burgosera eroan du C-1 autoa

Bergarako Realzaleak taldeak zozkatutako C-1 autoa Burgosera joan da. Hain justu ere, Miguel Angel Salinasek erosi zuen 6.574 zenbakidun txartela, eta hari egokitu zaio esandako autoa.

Eguen iluntzean eman zizkioten giltzak Salinasi, eta, argazkian ikus daitekeen moduan, pozik baino poziago jaso zituen, Bergarako Citroen kontzesionarioan. Irudian daude, ezkerretik eskumara: Carlos Goitia, Citroengo ordezkaria; Miguel Angel Salinas; eta Pili Osinalde, Bergarako Realzaleak taldekoa.

Realzaleak taldetik eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eskaini dieten guztiei eta herritarrei, oro har.

> ZERBITZUAK

## Familiendako orientazio zerbitzuak jarraitu egingo du

Hirugarren urtez, Udalak familientzako orientazio zerbitzua eskainiko du. Etxadi elkarteak eskainiko du zerbitzu hori eta edonork jo ahal izango du orientazio zerbitzura informazio eta orientazio eske. Seme-alaben heziketarako aholkularitza zerbitzua da eta orientazio zerbitzua eskaintzeaz gain, prestakuntza eta prebentzio gaiak ere ikertzen ditu, besteak beste. Informazio gehiagorako deitu 77 91 65 zenbakira.

> HITZALDIA

## Jose Maria Setien gotzain ohiaren hitzaldia eguenean

Gaur hasiko den San Joxepe elkarteko hamabostaldi kulturalaren barruan, hitzaldia egingo du eguenean, hilak 21, Jose Maria Setien Donostiako gotzain emerituak. *Kultura eta balioen krisia* izango du berbagai, 19:00etan, Miguel Altunako areto nagusian. Era berean, bihar, martitzena, *Ekonomia eta lan krisia* izango du berbagai Arturo Garcia etikako irakasleak, 19:00etan, Miguel Altunan.

### oharrak

DEIALDIA
**> Pol-Pol mendizale taldeak ez ohiko batzarra deitu du**
Hilaren 28an egingo dute, Miguel Altunan. Lehen deialdia da 18:30ean eta bigarrena 19:00etan. Gaur egungo egoeraz jardungo dute.

KINTADA
**> 1940an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 6an**
Torrekua jatetxean egingo dute, 14:30ean. 13:30ean meza egongo da Sierbetako elizan. Izena emateko deitu 943 76 35 76 edo 943 76 30 26 telefono zenbakira.

DEIALDIA
**> Kontsumo taldea sortzeko batzarra deitu dute**
Herriko baserrietako produktuen kontsumo taldea sortu nahi dute. Horretarako, batzarra deitu dute eguenerako, 19:00etan, kultura etxean.

IKASTAROA
**> Egur taila ikastaroa azaroan hasiko da**
Izenematea zabalik dago Taila Eskolak Zabalotegi 11 behean duen egoitzan, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

DEIALDIA
**> Obra eta Zerbitzuetako peoien lan-poltsa osatuko dute**
Udaleko Obra eta Zerbitzuetako peoi espezialisten lan-poltsa osatzera doa Udala lehiaketa-oposizio bidez. Bete beharreko baldintzak dira, besteak beste: 16 urte izatea, eskola ziurtagiria edo pareko titulua eta B motako gidabaimena. Eskariak aurkezteko epea urriaren 25ean bukatuko da. Oinarriak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* helbidean.

BERTSO AFARIA
**> Artatse elkarteko bertso afarirako txartelak salgai**
Urriaren 23an, zapatuan, izango da urtero Artatsen egiten duten bertso afaria, eta txartelak salgai jarri dituzte Kortazar eta Arrano tabernetan, 20 eurotan –16 euro ikasleek eta langabezian daudenek–. Bertso afaria 21:00etan izango da eta Jon Maia eta Unai Iturriaga bertsolariek parte hartuko dute.

DEIALDIA
**> Kristaloterapiaren gaineko hitzaldia, hilaren 20an**
*Kristaloterapia-Kuartzoen kolorea* izeneko hitzaldia emango du Lourdes Sudupe adituak, 19:00etan, kultura etxean. Jardun euskara elkarteak antolatu du. Emanaldia doan izango da eta interesa duten guztiak daude gonbidatuta. Kristaloterapia zer den azaltzearekin batera, kuartzozko kristalen onurez ere arituko da Sudupe hilaren 20an.

**Maider Sedano** > Gazte Informazio Bulegoko arduraduna

# "Azkeneko egunean malkoak botako ditudala argi dut; eskerrik asko, guztiei"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Maider Sedano urretxuarrak 11 urte eta sei hilabete eman ditu Gazte Informazioko Bulegoko arduradun. Udala zerbitzua berrantolatzekoa da, eta, ondorioz, hil bukaeran Maider badoa.**



Maider Sedano bulegoan. JOSETXO ARANTZABAL

**11 urte igaro eta gero bazoaz.**
Hasiera baten hiru urterako lana izan behar zuen, zerbitzuaren lizitazioak irauten zuena. Horren ondoren beste bitan lortu nuen lizitazioa. Azkenekoa orain, urrian bukatzen da eta Udaleko arduradunek erabaki dute Bergarako gazteek zerbitzu honen beharrik ez dutela; horregatik, azkeneko urtean zerbitzua hiltzen utzi dute. Ni irizpide honekin ez nago batere ados, baina erabakia ez dago nire esku.

**Une gazi-gozoak bizi izango zenituen Gazte Bulegoan. Kontatuko diguzu bakoitzetik bat?**
Bai. Gozoa da ikustea niregana informazio bila etorri izan direnean eta hurrengo batean informazio berria ekartzera etorri izan direnean, beste batzuei eman ahal izateko: adibidez, atzerrira lan bila joan direnak eta bueltan han lana errazago bilatzeko baliabideen informazioa ekarri didatenean. Edota turismo informazioa jaso ondoren euren bidaietako argazkiak edo planoak ekarri dizkidatenean. Asko dira une goxoak.
Une gaziak izan dira Foru Aldundiko udalekuetako zozketan izena eman duten ume nahiz gazteei tokatu ez zaiela esatean begiratzen didaten modua. Zozketa eguna gogorra da beti.

**Nolakoak iruditu zitzaizkizun bergararrak etorri zinenean? Eta gaur egun?**
Bene-benetan oso jende jatorra topatu dut Bergaran hasieratik. Eta hemendik lagun onak eramaten ditut, bezeroak eta Udaleko langileak.

**Eta zu zeu nola aldatu zara hainbeste urtean?**
Izugarri. 23 urterekin hasi nintzen. Kultura etxeko langile gazteena nintzen eta horren inguruan txantxak egiten genituen beti. Aspaldi ez naiz langile gazteena, baina txantxetan ibiltzeko ohitura ez dut inoiz galduko. Barre ederrak egin ditut hemen.

**Eta gazteei begira jarriz gero, hasi zineneko gazteak eta gaur egungoak asko aldatu dira? Zertan igartzen duzu aldaketa hori?**
Lanean hasi nintzenean, gazte askok ez zuen Internetik etxean; beraz, informazio bila bulegora etortzen ziren. Orain, gehienek dute eta bulegora etortzen dira informazio horretatik baliagarria zer den galdetzera. Egun, informazio asko dago, gehiegi, baina gazte gehienek ez dakite nondik hasi edo zein den informazio ona eta horregatik dira behar-beharrezkoak Gazte Informazio Bulegoak.

**Gazteen demanda edo eskari nagusia zein izan da?**
Gehienbat, ikasle nahiz aterpe-kide txartelak eta horrekin lotutako informazio turistikoa. Lan bila dabiltzanak ere ugari dira, baina egungo baliabideekin ez dute bulegora behin eta berriz etorri beharrik, informazio hori Buletin Elektronikoaren bidez etxera bidaltzen diete-eta astero.

**"Erabaki dute gazteek ez dutela zerbitzu honen beharrik; ez nago ados"**

**"Jende jatorra aurkitu dut Bergaran eta lagun onak eramaten ditut"**

**Gazteei bulegoan egiten zenizkien proposamenak, bidaiatzeko, esaterako, zuk ere egin izan dituzu?**
Ahal izan dudan guztietan. Niretzako bidaiatzea esperientzia zoragarria da beti, eta beti bueltatzen naiz bulegorako plano eta eskuorriekin. Eta kanpoan nagoela, aterpetxe bat topatzen dudanean, sartu eta kuxkuxeatu egiten dut gomendatzeko modukoa den edo ez jakiteko; deformazio profesionala da. Horren ondorioz, adibidez, duela urte batzuk, *Gomendatzen dizut* sariketa sortu genuen, Debagoieneko beste bulegoekin batera, eta geroxeago Gipuzkoako beste bulegoetara zabaldu zena.
Bergarako gazteak bidaietatik bueltan Gazte Bulegotik pasatzen ziren argazkiak erakustera, eskuorriak ekartzera eta besteentzako erabilgarriak ziren gomendioak ekartzera. Beraz, sari hori Bergarako gazteen borondatearen ondorioz sortu zen; mila esker, guztioi.

**Atzera begira jarriz gero, zerbait aldatuko zenuke?**
Ez.

**Zer eman dizu Gazte Bulegoak?**
Informazio kultura orokorra izatea eta gehiago jakiteko interesa.

**Zer egingo duzu aurrerantzean?**
Gazte Bulegoko lan horrez gain, beti izan dut beste lan bat edo batzuk; beraz, hor jarraituko dut jo eta ke lanean, eta, Bergarako jendea faltan ez igartzeko, eguenetako pintxo-potera etortzen jarraituko dut noizbehinka. Bestalde, denbora libre luzeagoa izango dut nire zaletasunez gozatzeko.

**Bukatzeko, beste ezer gehitu nahi duzu?**
Mila esker, guztiei, nirekin izandako jarreragatik eta eskainitako laguntzagatik. Azkeneko egunean malkoak botako ditudala argi dut. Jaso ezazue nire agurra eta behar duzuenerako hemen naukazue. Muxu bat.

**EUSKARA** > MINTZA PRAKTIKA EGITASMOA

## Berriketan programan izena emateko epea zabalik dago

Urrian hasi eta ekainera arte iraungo du programak

M.B. > BERGARA

Berriketan programan izena emateko epea zabalik dago Udal Euskaltegian, Udaleko Euskara Zerbitzuan eta Jardun euskara elkartean.
Programa hori datza egunero euskaraz bizi direnak eta sentitzen dutenak euskaraz berba egiteko ohiturarik ez duten pertsonekin elkartu eta esperientzia gozagarria konpartitzean.
Taldetxoak osatzen dira berba-kideen zaletasuna, gustua, adina, bizitokia eta ordutegia kontuan hartuz eta astean behin batzen dira. Baina, horrekin batera, taldeek elkar ezagutzeko eta harremanen sarea zabaltzeko, noizbehinka, ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera izaten dute: ikastaroak, irteerak, bazkari eta afariak, ikuskizunak, kultura irteerak...
Aurreko urteetan izena emanten dutenek etekin handia atera diote programari eta helburuak bete egin dituzte.

**HEZKUNTZA**> ESKAINTZA

# Ikastetxeendako ekintza didaktikoak Arrikrutzen

Lehen Hezkuntzako lehenengo ziklotik batxilergora arteko neska-mutikoek askotariko gaiak landuko dituzte 2010-11 ikasturtean



Bisitariak Arrikrutzeko 53. galeria ikusten. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Arrikrutzen eskaintza berezia dute ikasturte berrirako: ikastetxeendako ekintza didaktikoak egingo dituzte. Eskaintza zabala da, eta galeria fosil zein aktiboen ezaugarriak ikusteko aukera egongo da. Interesatuek 943 08 20 00 telefonora dei dezakete edo *arrikrutz@oinati.org* helbidera mezua bidali.

**ASKOTARIKO GAIAK**

Kobaren eskaintza zikloka banatu dute. Hala, Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik batxilergora arteko neska-mutikoendako eskaintza dute. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan –lehenengo eta bigarren mailak– lehen gizakia landuko dute. Antzinako animalien artean kobazuloetako bizitza nolakoa zen azalduko dute. Hirugarren eta laugarren mailetakoekin kobazuloen eraketaz eta erliebeaz egingo dute berba eta bosgarren eta seigarren mailetakoek kobazuloetako arroka eta mineralak landuko dituzte. Bestalde, DBHko lehenengo zikloko neska-mutikoek uraren higaduraz jardungo dute eta bigarren ziklokoek eta batxilergokoek karstologia landuko dute.

**MARTITZENETIK DOMEKARA**

Urria bukatu arte honako ordutegia dute Arrikrutzen: martitzenetik domekara 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Azken bisita kobak itxi baino ordubete lehenago egingo dute.

## oharrak

DEIALDIA

**> Hitzaldia egingo dute erretiratuen elkartean bihar**

Pake Lekun berbaldia egingo dute bihar, 17:00etan. Hain zuzen ere, umoreari nola eutsi azalduko du Amaia Diaz psikologoak. Hitzaldia erretiratuen elkartean egingo dute.

DEIALDIA

**> 1975eko kintoek bazkaria egingo dute azaroan**

Bost urteren ostean, 1975eko kintoak azaroaren 20an batuko dira bazkaltzeko. Interesatuek azaroaren 8a baino lehen eman behar dute izena: 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005370051042550 zenbakian. Bazkaria Soraluze hotelean egingo dute.

ZINEMA

**> 'A Prophet' zineklubean eta 'Babel' topalekuan**

Zinemazaleek bi aukera dituzte: eguenean, zineklubean, Jacques Audiarden *A Prophet* pelikula emango dute kultura etxeko aretoan, 20:00etan. Tahar Rahim. Niels Arestrip eta Adel Bencharif dira protagonistak.

Bestalde, hilaren 31n, Alejandro Gonzalez Iñarrituren *Babel* emango dute topalekuan, 17:00etan. Gael Garcia Bernal eta Cate Blanchett dira protagonistak.

## txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

### Noiz konponduko dituzte Aker ondoan dauden zuloak?

Irakurle batek kexa bidali digu Maiatzaren Bata plazan dauden zuloei buruz. "Iturri atzean bi zulo handi daude eta arriskutsuak dira. Ilunkeratan argi gutxi dago han, farola bakarra dagoelako. Sustoren bat hartu dut inoiz. Dagokionari eskatuko nioke lehenbailehen konpon dezatela, istripu larriren bat egon aurretik".

**DENDARIAK**

### Urrian eta azaroan sariak Txandarekin

Besteak beste, 5, 10 eta 25 euroko sari zuzenak lortu ahalko dituzte bezeroek

**M.B.** > OÑATI

Txandak, Oñatiko Txantxiku Dendarien Elkarteak, hainbat sari banatzen dihardu. Urrian eta azaroan promozio bi egingo ditu bezeroen fideltasuna eskertu eta haien artean dirua banatzeko.

Alde batetik, herriko dendetan Txanda-txartelarekin ordaintzen dutenek 5, 10, 20 eta 50 euroko sariak lor ditzakete. Beste alde batetik, erosketa bakoitzagatik zuzeneko sariak lor ditzakete bezeroek: Txandaren txartelak jasoko dituzte eta horien bidez 5, 10 eta 25 euroko sari zuzenak jaso ahalko dituzte.

Promozio horiekin Txanda txartelaren erabilpena indartu gura dute. Edozein dendatan eskatu ahalko da erosketa-txartela.

**KULTURA**

### Glu-Glu taldearen antzerkia umeendako

'Anbotoko Mari eta orrazi galdua' emanaldia egingo dute urriaren 31n

**M.B.** > OÑATI

Glu-Glu taldeak *Anbotoko Mari eta orrazi galdua* delako antzezlana eskainiko du hilaren 31n Santa Ana antzokian, 17:00etan. Umeendako emanaldia da eta sarrerak salgai daude kultura etxean, hiru eurotan.

**ORRAZI GALDUAREN BILA**

Glu-Glu taldeak Anbotoko Mariren istorioa kontatzen du. Zazpi urte hirian eman ondoren, mendira itzuli gura du, baina orrazia galdu du, eta horrela ezingo da itzuli. Odei izeneko mutikoak lagunduko dio orrazia aurkitzen, eta magiaz betetako istorioak biziko dituzte biek ala biek.

**KULTURA**

### Elortza eta Irizarren liburu aurkezpena

Makalena elkartekoen herri antzerkiak jaso dituzte bertan

**M.B.** > OÑATI

Inazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak *Olaitturriren herri antzerkiak* liburua aurkeztuko dute hilaren 29an kultura etxean, 19:00etan. Bertan, Makalena elkartekoek iaz eta aurten egindako antzezlanak batu dituzte, Oñatiko euskaran eta euskara batuan. Liburu aurkezpenera joaten diren guztiek liburua jasoko dute opari.

**AZKEN BI ANTZERKIAK**

Olaitturri elkartekoek *Oñatiko hitzarmena* herri antzerkia egin zuten iaz San Migeletan eta Gabonetan eta *Lizargarateko Txamao* irailaren 29an.


Basotxoko erretiratuak erizainaren azalpenak entzuten lehen sorospenen ikastaroan. M.A.

**ARETXABALETA** > ERRETIRATUAK

# Andaluzia aldera joan dira gaur 44 erretiratu

## Memoria lantzeko ikastarorako izenemate epea eguenean bukatuko da; dagoeneko 17 lagunek eman dute izena eta taldeak osatuko dituzte gero

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gaurtik hilaren 25era bitartean Andaluzia aldean ibiliko dira Basotxo erretiratuen elkarteko 44 lagun. Cadiz, Chiclana, San Fernando, Ubrique, Sevilla, Jerez de la Frontera eta Andaluziako beste hainbat herri ezagutuko dituzte zortzi egunetan.

Bestalde, herrian geratzen diren erretiratuek ETBko *Mihiluze* saiora ikusle gisa joateko aukera daukate. Bihar, martitzena, joango dira eta 15 bat lagun behar dituzte.

**MEMORIA LANTZEKO IKASTAROA**

Erretiratuek ekimen ugari dituzte antolatuta udazkenerako, tartean, osasunarekin zerikusia dutenak. Hala, joan den eguazten eta eguenean lehen sorospenen ikastaroa egin zuten Aretxabaleta Institutuan. Zazpi laguneko bi talde osatu zituzten eta zauriak eta erredurak zelan osatu, istripu baten aurrean zer egin eta eztarrian zerbait trabatuz gero zelan atera ikasi eta praktikan jarri zuten erizain baten laguntzarekin.

Eta laster memoria bizkortzeko ikastaroa egingo dute NIBE elkarteko adituekin –Nagusi Izanez Bizi Elkartea–. Asmoa da astean behin bi orduko eskolak ematea ondoko helburuarekin: memoria landu, adimena bizkortu, trebetasunak ez galdu… Zabalik dago ikastaroan izena emateko epea eguenera bitartean, hilak 21, eta dagoeneko 17 lagunek eman dute izena. Parte hartuko duten horien beharrak aztertu ondoren, taldeak osatuko dituzte lanean hasteko.

**KARTA JOKO TXAPELKETA**

Azaroan karta jokoen txapelketa egin gura dute Basotxon: mus, briska eta tutea. Horretarako, izena eman behar da tabernan.

**ESKORIATZA** > EUSKARA

# Abizenak euskaraz jartzeko aukera

## Bake epaitegian egiten dute tramitazioa; erraza da eta ez dauka kostu ekonomikorik

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

*Apellidoak abizendu* izenarekin abizenak euskaratzeko ekimena deitu du Eskoriatzako Udalak. Agiri ofizialetan abizenak euskaraz agertzeko tramitea Bake Epaitegian egin behar dute herritarrek eta "oso erraza" dela jakinarazi dute ekimena deitu dutenek.

**NORTASUN AGIRI BERRIA**

Aguiriano, Arregui, Cortazar, Eceiza, Pagalday eta beste abizen asko, guztiz euskaldunak direnak, oraindik gazteleraz idazten dituztela hainbat herritarrek konturatu dira udaletxean. Askotan zer egin behar den euskaraz jartzeko ez dakitelako izaten da, horregatik argibide guztien berri eman dute. Tramitazioa Hidalga kalean –kultur etxean– dagoen Bake Epaitegian egin behar da. Hona bertako ordutegia: astelehenetan eta eguaztenetan, 09:00-10:30; eta martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 12:00-14:00. Tramitazio horrek ez dauka inolako kostu ekonomikorik eta hona aurkeztu beharreko agiriak: nortasun agiria; interesatuaren hitzez hitzeko jaiotzaziurtagiria –epaitegian bertan lortzen da–; errolda-ziurtagiria –udaletxean eskatuta–; eta familia liburua, ezkonduta egonez gero edo seme-alabak izanez gero.

Behin epaitegiko aldaketa egin ondoren, norberaren dokumentazioa –NAN, pasaportea…– berritu behar da abizenak euskaraz idatzita agertzea gura bada.

Euskal izen eta abizenak zelan idazten diren jakiteko Euskaltzaindiako webgunera jo dezakete interesatuek.

**OMENALDIA** > MESEDEETAKO AMAK

# Herritarren agurra jasoko dute mojek domekan

## Meza entzun ostean bazkaltzera joango dira; oraindik eman daiteke izena

**M.A.** > ESKORIATZA

Eskoriatzan ia 100 urte egin ondoren, Karitateko Mesedeetako kongregazioak ateak itxi zituen irail bukaeran. Udalaren omenaldia eta esker ona jaso zuten egoitzan zeuden azken lau mojek irailaren 24an, baina orain herritarrek esan gura diete agur. Hori horrela, domekan, hilak 24, meza izango dute lehenengo (12:30) eta ondoren bazkaria (14:00). Bazkarirako izenematea oraindik zabalik dago; horretarako, 20 euro sartu behar dituzte interesatuek Euskadiko Kutxako 0441037094 kontu zenbakian.

**ESKER ONEKO AGURRA**

Mesedeetako mojen eta eskoriatzarren arteko harremana estua izan da urte askoan eta orain dela hilabete eskas esan zuten agur Eskoriatzan zeuden lau mojek: Sor Teresa Jauregi, abadesa; sor Arantxa Barrutia; sor Pilar Bedia; eta sor Mari Angeles Aranguren. Horien txanda hartuko duen ondorengo gazterik ez dagoelako erabaki zuen erlijio-ordenak beste etxe batzuetara bidaltzea laurak eta eskoriatzarrenganako esker onez beteta joan dira. Era berean, herritarrek eskerrak eman eta agur beroa eskaini gura diete domekan.

### oharrak

IKUS-ENTZUNEZKOA

**> 'Malko Gorriak' DVDaren aurkezpena eguenean**

Gerra zibila Aretxabaletan zelan bizi izan zen agertzen duen DVDa aurkeztuko dute hilaren 21ean (19:30) Arkupen.

Aurretik (19:00) Oroimenaren Autobusa izango da Durana kalean, gerra zibilean Debagoienean fusilatu eta desagertutakoak omentzeko.

IKASTAROA

**> Afrikako dantzak eta perkusioa ikasteko tailerra**

Ikastaroa antolatu dute Galartzako dorretxean: hilaren 23an, afari afrikarra (16:00-20:30) eta hilaren 24an, bazkari afrikarra (10:00-14:00). Izena emateko: 645 97 45 64.

> ELKARTASUNA

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur eta urriaren 29an

Gaur, astelehena, Arabako odol bankuko ordezkariak izango dira osasun etxean odola ateratzen (16:15-20:00). Udazkeneko odol ateratze jardunaldiko bigarren saioa da, eta hirugarrena hilaren 29an egingo dute, egubakoitza. Gaur, gainera, Odol Emaileen Elkarteko loteria izango dutela salgai osasun etxean jakinarazi dute.

Joan den astelehenean egindako saioan 44 lagunek eman zuten odola eta horietatik bat lehenengoz joan zen ematera. Udaberrian 137 aretxabaletarrek eman zuten hiru egunetan, eta orduko kopurura iristea gurako lukete arduradunek.

> MERKATARITZA

### Ordezkoarendako Aretxarteren iraileko zozketako saria

Aretxartek irailean egin zuen zozketako zenbaki saridunaren jabea ez da agertu –epea egubakoitzean bukatu zen–. Hori horrela ordezko zenbakia duenarendako izango da saria, hau da, Erriberriko La Joyosa hotelean (Nafarroa) bi lagunek bi gau pasatzeko aukera. Hona ordezko zenbakia: 31.544, Aitzorrotz etxetresnak dendan banatua –sariduna agertzeko epea, urriak 22–.

Egubakoitzerako agertzen ez bada zenbaki horren jabea bigarren ordezko zenbakia duenarendako izango da saria: 39.161, Imanol harategian banatua –epea, urriak 29–.

> ERRETIRATUAK

### Memoria bizkortzeko tailerrean parte hartzeko hilabete bukaera arte dago zabalik izenematea

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak estimulazio kognitiboaren gaineko ikastaroa antolatu du. Izena eman gura dutenek urriaren bukaera arte daukate epea zabalik. Ikastaroaren helburua da memoria bizkortu eta gaitasun ezberdinak hobetzea, zahartze osasuntsuagoa lortzeko. Hala, funtzionamendu kognitiboari dagozkion jarduera guztiak estimulazio programen bidez landuko dituzte: memoria, hizkuntza, atentzioa, kontzentrazioa, arrazoibidea, abstrakzioa…



Alaiak erretiratuen egoitzako irudi bat. E.M.

**ARAMAIO** > JENDARTEA

# Aramaioko Erretiratuen Eguna, urriaren 30ean

Abeltzainen eta artisauen azoka, herri bazkaria eta artzain-txakur txapelketa izango dira; bazkarirako txartelak 8 eurotan daude salgai

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Urriko azken zapatuan ohikoa denez, Aramaioko Erretiratuen Eguna ospatuko dute hilaren 30ean. Dagoeneko zehaztu dute egitaraua Udalean. Herriko abeltzainen azoka 10:00etatik 14:00etara Nardeaga kalean jarriko dute eta artisauen eta bestelakoen postuak ere izango dira. Eguerdian, 12:00etan, herriko hainbat taldek lagundutako meza izango da San Martin elizan eta ondoren erretiratuendako bazkaria kiroldegian. Txartelak 8 eurotan salgai daude. Auzo-alkateengana jo edo, bestela, Vital Kutxan, Euskadiko Kutxan edo udaletxean eman dezakete izena interesatuek. Bazkalostean, erretiratu nagusiei omenaldia egingo zaie eta sarien ohiko zozketa izango da. Arratsaldean, artzain-txakurren txapelketa jokatuko da Salazan baserri ondoko zelaietan, 17:30ean hasita.

Bestalde, Alaiak erretiratuen elkarteak Gernikako azokara joateko irteera antolatu du urriaren 25erako. Izena emateko azken eguna gaur da, astelehena.

**ARGAZKILARI ESKE**

Urriaren 30eko ospakizunari begira argazkizale bat kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Izenematea udaletxean egin dezakete interesatuek urriaren 22ra arte. Argibide gehiago 945 44 50 16 telefono zenbakian.

**ARGAZKI LEHIAKETA ETA ZINEMA**

Udalak antolatutako argazki lehiaketarako lanak urriaren 30era arte jasoko dituzte. Aramaiori buruzko argazkiak izan behar dira eta urtaro bakoitzeko irudi onenak 100 euro jasoko ditu. Sari nagusia, berriz, 200 eurokoa izango da. Zuri-beltzeko edo koloreko argazkiak bidal daitezke.

Bestetik, zinema emanaldia iragarri dute egubakoitzerako, hilak 22, kultura etxean. Tim Burton zuzendariaren *Alicia en el País de las Maravillas* eskainiko dute, 22:15ean.

**ANTZUOLA** > EMANALDIA

# Sergio Morenok Brasilera egindako bidaia erakutsiko du Olaranen hilaren 28an

Goizperko langilea da Moreno; Mundukidek gonbidatuta izan zen Brasilen, han egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Bi urte dira Kultura Sailak *Antzuolarrak munduan zehar* programa antolatzen duena. Horren barruan, hilaren 28an, Sergio Morenok Brasilera egindako bidaia azalduko du. Goizperko lankidea da Moreno; hala, Mundukidek gonbidatuta bidaiatu zuen Brasilera. Mundukideren asmoa zen dirulaguntzak ematen dizkioten enpresetako ordezkariak bidaltzea Brasilera, bertatik bertara ezagutzeko han egiten duten lana.

**AURTENGO LEHENENGOA**

Aurten egingo duten lehenengo emanaldia izango da Morenorena. "Zaila izaten da prest dagoen jendea bilatzea", azaldu du Kultura Saileko teknikari Jone Larrañagak.

Emanaldiak nolakoak diren galdetuta, Larrañagak dio gonbidatu bakoitzak erabakitzen duela: musikarekin, azalpenekin, hango produktuak erakusten dituzte, elikagaiak... Helburua da bidaian zehar egindako argazkiak erakustea herritarrei.

Olaranen izango da emanaldia, 18:30ean. Herritar asko batzen duen emanaldia izaten da.

**ELGETA** > ELGETA 2020

# Bihar, martitzena, hasiko dira telefonoz inkestak egiten

18 urtetik gorako 200 elgetarren erantzunak jaso nahi dituzte; Udalak galderak arretaz erantzuteko eskatzen die herritarrei

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Herritarrei telefono bidez egingo zaizkien 38 galdera prestatu ditu Udalak. Elgetarrek udal politiken gainean duten balorazioa jasotzea da helburu nagusia. Horrez gain, herriko arazo eta behar nagusiak zeintzuk diren ere jasoko dute. Udal arduradunek diote emaitza oso baliagarria izango zaiela, besteak beste, herritarren lehentasunak baloratzeko.

**INKESTAK, HIRU ASTEZ**

Elkarrizketak Gizaker enpresak egingo ditu. Jakinarazi dutenez, inkestatzaileek 09.30etik 21:30era jardungo dute lanean, eta herri galdeketa hori Foru Aldundiaren Kudeatuz programaren barruan dago. Inkesta horren osagarri, joan den astean galdetegi sinpleagoak banatu ziren etxez etxe. Eta asteon, eguenean, *Elgeta 2020* egitasmoa aurkeztuko dute.



Etxez etxe banatutako inkestak udaletxeko postontzira eraman daitezke. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > UDALA

# Datorren urteko tasak onartzeko bilkura dago gaur

Osoko bilkuran hiltegiaren gaineko erabakia hartuko du udalbatzak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gaur, hilak 18, ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak bi konturen gaineko erabakia hartzeko (19:00).

Batetik, datorren urtean aplikatuko dituzten udal tasa eta zergen igoerak eztabaidatu eta onartuko dituzte; tartean, ondasun higiezinen gaineko zerga, ibilgailuak izateagatik ordaindu beharreko tasa eta pilotalekuaren erabileraren prezioa. Iaz, tasa gutxiri aplikatu zieten igoera, egoera kontuan hartu zutelako udalbatzako kideek eta herritarrei ez zietelako zama ekonomikoa handitu gura izan.

Bestetik, Zubillagako hiltegiaren gaineko erabakia hartuko dute gaurko bilkuran. Mankomunitatearen asmoa da hiltegiaren kudeaketaren ardura udalek osatuko duten elkarte publiko batek hartzea. Horretarako, udal bakoitzak erabaki behar du elkarte horretan egon gura duen edo ez, eta horixe bozkatuko dute Gatzagako zinegotziek. Onartuz gero, elkarte publikoko araudi eta estatutuak ere onartuko dituzte eta hilabeteko epean ikusgai egongo dira alegazioak aurkezteko.

**URA ETA ESTOLDERIA TASAK**

Bestalde, hirugarren hiruhilabeteari dagokion edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren tasa ordaintzeko epea zabaldu du Udalak. Abenduaren 6a bitartean ordaindu beharko dute tasa hori herritarrek udaletxean –helbideratutako ordainagiria dutenek izan ezik–. Herritarren bat ez balego ados ordaindu beharrekoarekin, hilabeteko epea du alegazioa aurkezteko.



**> FUTBOLA**
Mondrak merezimendu osoz irabazi du Aloñaren kontrako derbia **> 22-23**



**> ESKUBALOIA**
Bergarak galdu egin du asteburuan eta Ford Mugarrik irabazi **> 24**



**> ERRUGBIA**
Denboraldiko lehen garaipena lortu du senior mailako taldeak **> 25**

# Miguel Ruiz izan da garaile Arrasateko squash txapelketan

**FINAL GOGORRA**
Ruizek eta Ferreirok lehia gogorra izan zuten finalean

**41 PARTAIDE**
AKE squash taldeko ordezkariak pozik parte-hartzearekin



Alberto Ferreiro pilota astintzen zapatuko azken faserako sailkapen partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**ANDER MONEDERO** > ARRASATE
Egubakoitz arratsaldean hasi eta zapatu iluntzean bukatu zuten aurtengo Arrasateko squash txapelketa. 41 jokalari lehiatu ziren eta Miguel Ruiz izan zen onena, finalean Alberto Ferreiro menderatu ostean. Biek ala biek partidu orekatua jokatu zuten zapatu arratsaldean. Ferreiro aurreratu zen 2-1, baina Ruizek buelta eman zion partiduari eta 3-2 irabazi zuen. Finalaren aurretik kontsolazio finala jokatu zuten Jose Luis Unanuek eta Aitor Yanguasek, eta azken horrek irabazi zuen.

**AZKEN AURREKO PROBA**
Euskadiko Liga Txapelketako azken aurreko proba izan da aste bukaerakoa. Guztira, 41 jokalari lehiatu dira, iaz baino 20 gehiago: bederatzi AKE Arrasateko squash taldeko kideak izan dira, eta Euskadiko Ligako lehen hamar sailkatuetatik zortzi ere egon dira –tartean, aurreneko bostak–. Euskal Autonomia Erkidegoko jokalari onenek parte hartu dutenez, goi mailako txapelketa batez gozatzeko aukera egon da asteburuan.

Egubakoitzean final hamaseirenak eta final zortzirenak jokatu zituzten. Partidu horietan ondoen jokatu zutenek hurrengo fasean jokatzeko txartela eskuratu zuten. Zapatuan, berriz, azken kanporaketak jokatu zituzten bost setera; hain zuzen ere, final laurdenak, finalerdiak eta finala. Goizean final laurdenak eta finalerdiak jokatu zituzten, eta arratsaldean finala.

**ANTOLATZAILEAK POZIK**
Arrasateko squash txapelketak izandako parte-hartzaile kopuruarekin pozik azaldu zen Iñaki Uribetxeberria, AKEko arduraduna. Izan ere, aurreko edizioan baino 20 jokalari gehiagok eman zuten izena.

Emakumeen txapelketa ere antolatzea zen AKEren helburua, baina Laura Saezen –AKEko kidea eta Espainiako txapelduna– eta beste jokalari batzuen parte hartzea kolokan zegoenez, bertan behera utzi zuten.



Jokalariak eta antolatzaileak sari banaketaren ondoren. A.M.



A.M.

**Miguel Ruiz** > Irabazlea

## "Finalera iristeko beharrezkoa da ondo entrenatzea"

**A.M.** > ARRASATE
**41 partaideen artetik onena izan izan da Miguel Ruiz. Arrasateko txapelketara etortzen den bigarren aldia da eta Iñaki Uribetxeberriak squasha ezagutarazteko egiten duen lana nabarmendu du.**

**Txapelketan 41 pertsonek eman dute izena. Parte-hartze handia da?**
Azken urteetan gora egin du. Kopuru polita da; ea urte luzez mantentzeko gai izaten garen.

**Zer nolako maila izan da?**
Nahiz eta amateur txapelketa izan, maila handia duten jokalariek parte hartu dute. Euskadiko Txapelketa bukatzeko puntuan gaude eta hori igartzen da partaidetzan.

**Asko sufritzen al da horrelako txapelketa batean?**
Bai. Finalera iristeko bi egunetan hiru edo lau partidu jokatu behar dituzu eta azken partidura ondo iristeko entrenamendu egokia egitea beharrezkoa da. Squash partidu batek 45-60 minutu irauten ditu eta hasieratik hasten zara %100 ematen. Askotan, horrelako txapelketa batean, norbera izaten da bakoitzaren aurkaririk okerrena.



Norgehiagoka nahiko lasaia izan zuen Ander Ruiz Mondrako atezainak. Aloña ez zen larregi heldu haren atera, eta ailegatu zen kasu gehienetan ondo eutsi zioten Mondrako atzelariek.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > SEIGARREN JARDUNALDIA

# Derbietako berdintasuna apurtu eta erraz nagusitu zen etxeko taldea

Aloñako defentsaren akatsak aprobetxatuta, merezimendu osoz nagusitu zen Mondra

**MONDRA**
**3-0**
**ALOÑA**

**Mondra** > Ander, Roa, Loiti, Tena, Laspiur (Jokin Pavo, 30. min.), Ekain, Oier (Kepa Merkader, 84. min.), Gari, Murua (Markel 81. min/ Andres 87.min.), Lopez eta Lander (Julen Moreno, 71. min.).

**Aloña** > Mikel, Gorka, Iker Agirre, Mikel Palacios, Iñigo, Gaizka (Iñigo Arregi 58. min.), Iosu, Ander, Abel (Andoitz, 69. min.), Jagoba (Alberto 75.min) eta Iker Olalde.

**Epailea** > Jesus Ibañez jauna. Zenbait jokalditan ez zuen asmatu, baina haren erabakiek ez zuten azken emaitzan eragin.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Lehia biziko partiduak izateagatik bereizten dira derbiak. Taldeak bizi duen bolada ahaztu eta edozer gauza gerta litekeen norgehiagokak izan ohi dira. Bada, hori horrela, Mondra eta Aloñaren arteko zapatuko derbia salbuespena izan zen. Nagusitasun osoz gailendu zen Mondra, eta Aloñak, azken minututan izan ezik, ez zuen partiduaren bila joateko asmorik erakutsi.

Ikusle askotxo zegoen Mojategin, igartzen zen derbia zela. Berioren aurka irabazi ostean (0-2), zerrajeroek bolada onean egin zioten aurre lehiari eta Aloña, berriz, etxean Real Unionen aurka jipoi galanta (0-5) jaso ondoren heldu zen Mojategira. Beraz, talde bakoitzaren bolada ezberdinak berretsi zituen derbiak: Mondra gorantz eta Aloña beherantz.

**MONDRAREN PRESIOAK ALOÑA ITO**

Oro har ez zen joko larregi ikusi Mojategin, baina Mondrako jokalarien eskutik, bereziki, goi mailako zenbait zertzelada ikusi ahal izan ziren. Etxeko taldea ondo kokatuta irten zen, presioa oso ondo eginez. Eta presio horrek ito zuen Aloña: lehiaren lehen txanpan atezainari egindako atzerako pase txar batek atezainaren akatsa eragin eta baloiak Iker Lopezen gorputzean jo ostean sareetan amaitu zuen (1-0). Mikel Aginagalde Aloñako atezainak ez zuen bere eguna izan, nahiko urduri ibili zen partidu osoan zehar.

Golaren ostean Aloñak hartu zuen baloia baina ez zuen inongo arriskurik sortu Ander Ruizen atean. 30. minutuan Iker Laspiur etxekoen kapitaina lesionatu egin zen eta minutu eskas batzuetan zelai erdia galdu zuen Mondrak. Lekua berriz hartu zutenean heldu zen bigarren gola, atsedenaldirako minutu gutxi falta zirenean: Oier Arregiren area kanpoko jaurtiketa bat zelaiaren bote azkarrak pozoindu –euriak jokoa asko azkartu zuen– eta barrura (2-0).

**ALOÑAK ERREAKZIORIK EZ**

Bigarren zatian, eta 2-0koarekin, Aloñak jarri zion erritmoa partiduari. Baloia euren hanketan izan zuten baina ez zuten aurkaria estutu. Oñatiarrek ez zuten erreakziorako gaitasunik erakutsi; Pablo Diez entrenatzaileak dioenez "beheraldi psikologiko garrantzitsu baten" murgilduta dago taldea: "Hiru jardunaldi daramatzagu arazo larriekin. Arazoa psikologikoa da, jokoarena baino gehiago. Jokalari garrantzitsuak falta zaizkigu, baina hori ez da aitzakia; 23 jokalari ditugu taldean eta jubenilen lanarekin oso pozik nago". Azken jardunaldietan "gol gehiegi" jaso dituztela dio eta horrek taldearen autoestimuan asko eragin duela.

Gainera, derbia aintzat hartuta, Diezek dio partiduko une garrantzitsuenetan bi gol jaso izanak taldea hondoratu zuela. Izan ere, 44. eta 90. mintuetan jaso zituzten 2-0 eta 3-0ko golak. Bolada txarrari aurre egiteko modu bakarra lanean jarraitzea dela gaineratu zuen Diezek.

**BATA GORA ETA BESTEA BEHERA**

Derbiaren ostean, laugarren postuan geratu da Mondra. Aloña, berriz, jaitsiera postuetatik gertu dago, sei punturekin.

**Iban Roa** > Mondrako atzelaria

## "Espero baino gutxiago estutu du Aloñak; nahiko erraz irabazi dugu"

**J.B.** > ARRASATE

**Iban Roak derbia espero baino errazago poltsikoratu zutela aitortu zuen. Atzelariak ondo ikusi zuen Mondra, batez ere, presioa egiterako orduan.**



J.B.

**Nola ikusi duzu derbia?**

Ondo ibili gara, batez ere, atzealdean eta presioa egiterako orduan. Lehen gola ondo egindako presioaren ondorioa izan da. Gero, Iker Laspiur lesionatu egin da eta minutu batzuetan apur bat galduta ibili gara zelai erdian. Baina lekua hartzearekin bat bigarren gola sartu dugu atsedenaldi aurretik eta horrek asko lasaitu gaitu.

**Eta bigarren zatian Aloñak ez du larregi estutu.**

Bigarren zatian ondo jarrita egon gara. Egia da Aloñak 2-0koarekin espero baino gutxiago estutu duela, eta ez dute aukera garbirik izan. Nahiko erraz irabazi dugu.

**Bolada ona hartu duzuela dirudi.**

Bai. Gaizki hasi ginen, baina buelta ematea lortu dugu. Bazen garaia etxean partidua kontrolpean izanda irabazteko, eta hala izan da gaur (zapatua): 3-0, atea hutsean mantenduz. Hau da jarraitu beharreko dinamika; gogoz lan eginez, emaitza onak datoz.


JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA > SEIGARREN JARDUNALDIA

# Etxean jokatu arren, pozik egoteko moduko puntua lortu zuen UDAk

0-1 galtzen zihoan etxeko taldea, 60. minutuan Kerman Azkarraga kanporatu zutenean; Gillen Mar erdilariak lortu zuen berdinketa

| |
|---|
| UDA |
| 1-1 |
| BERIO |

J.B. > ARETXABALETA

Etxean berdintzeak zapore gazia utzi ohi du jokalariengan, baina UDAkoak pozik egon daitezke atzo Berioren aurka lortu zuten puntuarekin. Izan ere, aretxabaletarrak 0-1 galtzen zihoazenean, Kerman Azkarraga atzelari arrasatearra egotzi zuen epaileak.

Sarrera itsusi baten ostean zuzeneko txartel gorria erakutsi zion epaileak Azkarragari; Rafa Barrutia entrenatzailearen ustez, "zorrotzegia" izan zen epailea. Bada, jokalari bat gutxiagorekin berdintzea lortu zuen etxeko taldeak, Gillen Mar erdilariak albo bateko falta bidezko erdiraketa bat aprobetxatu ostean.

**LEHIA BERDINDUA**

Barrutiak azaldu duenez, lehen zatian nagusi izan zen UDA. Aukera askotxo izan zituzten baina larregi barkatu zuten. Beriok "talde ona" duela uste du, ondo jokatzen dakiena. Lehia berdindua izan zen eta hamar jokalarirekin geratu ostean baloia jabe barik ibili zen area batetik bestera. Beraz, eta norgehiagoka nola joan zen ikusita, erdietsitako puntua "oso ona" dela dio UDAko entrenatzaileak. Jokalarien lanarekin pozik zegoen.


UDAko jokalaria, Berioko bi atzelariren artetik pasatu guran. J.A.


Mondrako Jon Muruamendiaraz Aloñako Iker Agirrerengandik joan guran. J.A.

**Iker Olalde** > Aloñako atzelaria

## "Gola jasotzen dugunean egoerari buelta ematen ikasi behar dugu"

J.B. > ARRASATE

**Burumakur zegoen Iker Olalde lehiaren ostean. Hala ere, talde ona dutela deritzo eta oraindik jardunaldi asko geratzen direla bolada txarrari buelta emateko.**


J.B.

**Nola ikusi duzu partidua?**

Bi zati ezberdin izan dira. Lehenean baloi asko izan dugu, baina atzean egindako bi akatsetan bi gol egin dizkigute. Mondra oso erraz heltzen zen gure areara eta guk, berriz, ez dugu inolako arriskurik sortu euren atean. Bigarren zatian, berriz, partidua guk eraman dugu, baina arrisku barik. Makal ibili gara aurrean.

**Aurreko jardunaldian bost eta oraingoan hiru. Gol asko ari zarete jasotzen.**

Bai, gogorra ari da izaten. Oso emaitza eskasak dira eta, nire ustez, gakoa da gol bat jasotzen dugunean ez dakigula buelta ematen. Horretan egin behar dugu lan. Oraindik sei jardunaldi bakarrik jokatu ditugu eta talde gaztea eta ona gara, jokatzen dakiena. Gure jokoa egiten hasten bagara helduko dira emaitzak. Baina horretarako gogor egin behar da lan.

**Lana sendagai bakarra, beraz.**

Asteko lana zelaian islatu behar dugu, kastarekin eta gogor sartuz.

PASAJES-BERGARA

## Azken unera arte eutsi ostean, galdu (5-3)

J.B. > BERGARA

Bergarak 5-3 galdu zuen Pasajesen aurka. Talde ona du Pasajesek baina Oskar Maiztegiren mutilak gainditzea asko kostatu zitzaien. Hala uste du Maiztegik: "Ondo eutsi diegu, 4-3koa azken minutuan sartu digute eta gu jokalari bat gutxiagorekin geundenean. Jarrera aldetik taldeari ezin zaio gehiago eskatu, azken unera arte borrokatu dugu". Irabazten ere joan zen Bergara –0-1 eta 1-2–, eta 90. minutura arte 3-3 zihoazen. Azken minutuetan bi gol sartu zituzten etxekoek.

Defentsan gaizki aritu ziren bi taldeak eta gol guztiak estrategia jokaldietan heldu ziren. Bergararren hiru golak Unai Agirrek sartu zituen.

> ERREGIONAL PREFERENTEA

### Orioko baino zertxobait gehiago izan zen Antzuola: Zubikarairen gol bati esker, garaipena etxean (1-0)

Lehia handiko partidua izan zen Estala futbol zelaian Antzuolak eta Oriokok zapatu arratsaldean jokatu zutena. Juanina Garai antzuolarren entrenatzailea pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: "Asko borrokatu behar izan dugu hiru puntuak lortzeko eta alde bietan aukerak izan diren arren, Antzuolak zertxobait gehiago egin du partidua irabazteko". Josu Zubikaraik sartu zuen lehiako gol bakarra, lehen zatiko 25. minutuan.

Bestalde, UDAko eta Mondrako bigarren taldeek puntu garrantzitsuak lortu zituzten etxetik kanpo. Aretxabaletarrek 2-3 irabazi zioten Mutrikuri eta zerrajeroek, partidua bi jokalari gutxiagorekin amaitu ostean, berdinketa lortu zuten Lazkaon (2-2).

> EMAKUMEZKOEN LIGA

### Mutrikun irabazi ostean (3-4) sailkapeneko lehen postuan jarri dira Mondrako neskak

Garaipen garrantzitsua lortu zuten Mondrako neskek zapatuan Mutriku aldera egindako bisitan. Gol festa izan zen San Migel zelaian, eta azken emaitza 3-4 izan zen. Denboraldi hasiera honetan Mondrak erraztasun handia erakutsi du golak egiterako orduan; jardunaldi honetan ere lau gol egitea lortu dute etxetik kanpo.

Hala, denboraldi hasiera bikainari eutsi diote Andoni Ezkurra eta Jon Zuloagaren neskek eta sailkapeneko lehen postuan jarraitzen dute, 12 punturekin. Izan ere, ez dute partidu bakar bat ere galdu. Are gehiago, jokatutako lau partiduak irabazi dituzte. Ea bada bolada onari denboraldi amaiera arte eutsi eta aurten mailaz igotzea lortzen duten.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# "Bigarrenean ondo jokatu dugu, baina lehenengoan negargarri"

Soraluze Bergarak galdu egin zuen Hondarribiaren kontra Labegaraietan

SORALUZE BKE
**27-32**
HONDARRIBIA

**Bergara** > Uribe, Etxeberriarteun (2), Sudupe (5), Ugalde (6), Plazaola (8), Lenisoro, Iñurrieta, Sevillano, Urbina, Unamuno (2),Iparragirre (2), Agirre, Kapelastegi eta Vaz.

**Hondarribia** > Leon, Tello, Martinez (2), Sagartzazu (1), Aldanondo (2), Olazabal, Lozano (5), Calvo, Gomez, Etxeberria (8), Velasco (4), Mateos, Guevara eta Vazquez (10).

**Bestelakoak** > Ikusle asko bildu zen Labegaraietan. Batzuk Bergarakoak eta beste asko Hondarribikoak.



Bergarako jokalari Mikel Plazaola hegaletik jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

"Hirugarren aldiz jarraian akats berbera egin dugu. Zati bat ondo jokatu dugu, eta beste bat negargarri. Lehen zatian 21 gol jaso ditugu, eta bigarrenean 11 bakarrik. Horrela ezin daiteke partidurik irabazi". Hitz horiekin laburbildu zigun Soraluze Bergarako entrenatzaile Josetxo Muniategik zapatuko partidua.

**LEHENA, NEGARGARRI**

Lehen zatiko hasierako 10 minutuak izan ziren parekatuenak, baina beti egon zen aurretik Hondarribiko taldea. 13. minuturako lau gol atzetik zeuden mahonerоak (7-11). Erasoa antolatzeko arazoak zituzten, baina batez ere defentsan zulo asko uzten zituzten. Horiek baliatuz Hondarribiak gol asko egin zituen. Atsedenera sei goleko errentarekin heldu zen Hondarribiko taldea (15-21). "Txapelketa hasierako hiru partiduetan oso motel gabiltza defentsan, eta hor galtzen ditugu partiduak. Entrenamenduetan lantzen ditugu jokaldi horiek, baina partiduetan ez dugu asmatzen", esan zigun Muniategik.

**BIGARRENEAN, HOBETO**

Bigarren zatian beste aurpegi bat erakutsi zuen Bergarak. Defentsako zuloak itxi, eta erasoan joko azkarra egin zuen. Hori horrela, hondarribiarrek zuten errenta txikitzen hasi ziren, eta 22. minutuan abantaila bi golera jartzeko aukera izan zuten bergararrek, baina kontraerasoan huts egin zuten. "Lehia galdutzat eman dugunean, bost minutu oso on jokatu ditugu. Baina ez gara gai izan tentsioa mantentzeko, eta ez digu ezertarako balio izan", azaldu zigun entrenatzaileak.

Bukatzeko bost minutu falta zirenean, sei goleko errenta zuten hondarribiarrek (25-31), eta lasai jokatu zuten bukaera arte errenta mantenduz

## Ford Mugarrik partidu ona jokatu eta irabazi egin zuen Romoren kantxan atzo

Ford Mugarrik irabazi egin zuen atzo Romoren kantxan (29-34). Edu Orgazen mutilek partidu ona jokatu zuten, eta indartsu ibili ziren bai defentsan eta baita erasoan ere. Hasieratik menderatu zuten partidua, eta atsedenean 14-19 ziren aurretik. Bigarren zatiko lehen bost minutuetan gauzak zaildu egin zitzaizkien arrasatearrei, Romok defentsa aldatu egin zuelako. Orduan, erasoan arazoak izan zituzten zuloak topatzeko. Bizkaitarrak bi goletara jarri ziren. Dena den, arrasatearrak ez ziren kikildu eta segituan hartu zuten lehiaren kontrola berriro ere. Handik aurrera ez zuten arazorik izan abantaila mantendu eta bi puntuak eskuratzeko. Aste bukaeran Iturripen jokatuko dute Urdulizen kontra.

**Josetxo Muniategi** > Entrenatzailea

## "Iazko jokalari berberak ditugu, baina ez dugu asmatzen"

**M.B.** > BERGARA

**Eskubaloi partidua bukatu ondoren, luze eta zabal egin zuen berba Josetxo Muniategik jokalariekin. Lehiak irabazteko hobetu beharrekoez jardun zuten.**

**Hondarribiaren kontra ere ezin irabazi.**

Ez dakit zer gertatzen zaigun. Iazko jokalari berberak ditugu, baina ez dugu asmatzen.

**Zein da arazoa?**

Nik uste dut arazo psikologikoa dela. Entrenamenduetan ondo egiten dugu lan, baina une erabakigarrietan blokeatu egiten gara.

**Hirutik hiru galdu dituzue. Kezkatzen hasi zarete?**

Lehenbailehen irabazi behar dugu lehen partidua, bestela kezkatzen hasiko gara. Gogorrena da orain arte jokatu ditugun hiru partiduetako taldeak gure maila berekoak direla. Oraindik ez dugu jokatu talde indartsuenen kontra. Orain arte jokatu dugun taldeekin lehiatuko gara maila mantentzeko. Lehia horiek irabazi behar ditugu, bestela...



M.B.



J.A.

## Eskoriatzako neskek sendo jarraitzen dute bigarren tokian

Eskoriatzako saskibaloi taldeak arazo barik irabazi zuen zapatuan Oiarsoren kontra (57-22), Intxaurtxuetan. Eskoriatzarrek ez zuten arazorik izan partidua kontrolatzeko. Indartsuagoak izan ziren erasoan eta defentsan. Zapatuko puntuek aukera ematen diete sailkapeneko bigarren tokian sendo jarraitzeko, Cafes Aitona eta Alde Zaharrarekin berdinduta, eta Bera Bera Gros taldearen atzetik. Aste bukaeran Krafft Atletico San Sebastianen kontra jokatuko dute.

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA

# Atzean sendo, hirugarren garaipena Aloñarendako

Oñatiarrek Askartzaren kantxan irabazi zuten 56-70 eta lider jarraitzen dute

**M.B.** > ARRASATE

Aloñak hartu dio neurria lehen mailari. Hirutik hiru partidu irabazi ditu. Azkena, zapatuan, Askartzaren kantxan. Igartuaren taldea 56-70 nagusitu zen defentsa sendoarekin, eta sailkapeneko lehen tokian jarraitzen du, tinko.

**LAUGARRENEAN ERABAKITA**

Partidu serioa jokatu zuen Aloñak: atzeko lerroan eta errebotean sendo, eta hiruko jaurtiketatan eta erasoan fin. Hasieratik bukaerara menderatu zuen partidua. Zazpi puntuko aldea mantendu zuen atsedenera arte. Hirugarren tartean 14 puntu aurreratu zen, baina bizkaitarrek estutu, eta sei puntura hurbildu ziren. Azken tartean, baina, norgehiagoka erabakita utzi zuten oñatiarrek.

Zapatuan UPV Alavaren kontra jokatuko dute Zubikoa kiroldegian.

ERRUGBIA >SENIOR MAILA

# Denboraldiko lehen partidua irabazi zuten Arrasatekoek

Igor Isasiren mutilek jipoitu egin zuten Getxo Mojategin (17-0), eta arazo barik irabazi zuten norgehiagoka; bizkaitarrek ez zuten aukerarik izan

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko senior mailako errugbi taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen zapatuan; garaipen borobila, gainera: 17-0 menderatu zuen Getxo taldea. Bizkaitarrek ez zuten aukerarik izan punturik egiteko, eta arrasatearrek erraz irabazi zuten.

Teorian partidu oso parekatua izan behar zuen zapatukoak, arrasatearrak puntu barik zeudelako eta bizkaitarrak partidu bat irabazita eta beste bat galduta zetozelako. Baina etxekoak tentsio handiarekin irten ziren Mojategiko zelaira, eta ez zieten aukerarik eman Getxoko jokalariei.

Arrasateko taldearen helburua zen lehen garaipena lortzea sailkapeneko zulotik ihes egiteko, eta lortu zuten; erraz, gainera. Astea lasaiago pasako dute Igor Isasiren mutilek.

Oraingoz, Irungo taldea da mailako talderik indartsuena.


Arrasateko jokalari Ander Gartzia baloia hartu guran. JOSETXO ARANTZABAL

**NESKEK GALDU**

Bestalde, nesken errugbi taldeak jipoi galanta jaso zuen Faduran Getxoren kontra: 47-0 galdu zuten zapatuan. Jon Iriaren taldeak ez zuen puntu bat bera ere egiteko aukerarik izan sailkapeneko bigarrenaren kontra. Arrasatekoek azken tokian jarraitzen dute.

**KADETEAK ETA GAZTEAK**

Azkenik, gazte eta kadete mailetako taldeek Bera-Beraren aurka jokatu zuten zapatuan Mojategin, eta biek ala biek galdu egin zuten: kadeteek 10-41 galdu zuten, eta gazte mailakoek 10-13.


J.A.

## Euriari aurre eginez, 201 ziklista irteeran

Eguraldiari aurre eginez, 201 ziklista elkartu ziren atzo Eskoriatzan, Debagoieneko zirkuituko laugarren martxan. Euria eta hotza izan zituzten lagun ibilbide osoan, eta tarte batzuetan behe-lainoa izan zen protagonista. Antolatzaileek esan ziguten txirrindulari asko galdu egin zirela eta matxura dezente egon zirela.

## Futbola

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Hernani** | **15** | 6 |
| 2. **Real Union** | **13** | 6 |
| 3. **Anaitasuna** | **12** | 6 |
| 4. **Mondra** | **10** | 6 |
| 5. **Oiartzun** | **10** | 6 |
| 6. **Pasajes** | **10** | 6 |
| 7. Aurrera **Ondarroa** | **10** | 6 |
| 8. **Aretxabaleta** | **9** | 6 |
| 9. Idiazabal | **9** | 6 |
| 10. **Trintxerpe** | **8** | 6 |
| 11. **Ordizia** | **8** | 6 |
| 12. **Hondarribia** | **7** | 6 |
| 13. **Idiazabal** | **6** | 6 |
| 14. **Bergara** | **6** | 6 |
| 15. **Aloña Mendi** | **6** | 6 |
| 16. **Berio** | **5** | 6 |
| 17. **Zumaiako** | **4** | 6 |
| 18. **Roteta** | **1** | 6 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| **Mondra-Aloña Mendi** | 3-0 |
| Real Union-Hondarribia | 3-1 |
| Anaitasuna-Trintxerpe | 1-0 |
| Aurrera-Roteta | 2-0 |
| Ordizia-Zumaiako | 1-0 |
| Hernani-Oiartzun | 1-0 |
| Pasajes-**Bergara** | 5-3 |
| Idiazabal-Tolosa | 2-0 |
| **Aretxabaleta-**Berio | 1-1 |

**Hurrengoak**

Hondarribia-**Mondra**
**Bergara-**Hernani
**Aretxabaleta-**Idiazabal
Berio-**Aloña Mendi**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Tolosa-Aretxabaleta | 3-1 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Peña Ath.Santurtzi | 0-2 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Mutriku-Aretxabakleta | 2-3 |
| Antzuola-Orioko | 1-0 |
| Lazkao-Mondra | 2-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Bergara "B"-Urki | 5-1 |
| Aretxabaleta-Eibartarrak | 1-2 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Mondra-Zarautz | 4-0 |
| Aloña Mendi-Urola | 1-0 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| Urki-Arizmendi | 2-2 |
| Bergara "B " | Atsedena |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Beasain-Bergara | 1-3 |
| Aretxabaleta-Amaikak Bat | 1-1 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA** | |
| Bergara "B | Atsedena |
| Arizmendi UDA-Aloña Mendi | 2-2 |
| Aloña Mendi-Ilintxa | 1-8 |
| Aretxabaleta-Arrasate | 1-4 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Mutriku-Mondra | 3-4 |
| **INFANTILAK OHOREZKO MAILA** | |
| Bergara-Elgoibar | 3-1 |
| Lagun Onak-Arrasate | 1-1 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Aurrera | 3-1 |
| Aloña Mendi | Atsedena |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Soraluze BKE-Hondarribia | 27-32 |
| Romo-Ford Mugarri | 29-34 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Arrasate-Egia | 21-32 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| BKL-Izarraitz Aloña Mendi | 27-21 |
| **GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Leizaran-Bergara | 43-25 |
| Aloña Mendi-Katilu | 36-18 |
| **GIPUZKOAKO GAZTEAK EMAKUMEAK** | |
| Bergara Soraluze-Egia | 16-24 |
| Aloña Mendi A-Ereintza | 19-18 |
| Ordizia Irurena-Aloña Mendi B | 26-15 |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TXAP.** | |
| Talleres Chapime-Soraluze B | 24-24 |
| Irungo-Berezao Aloña Mendi | 19-21 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Askartza-Sustrai Aloña Mendi | 56-70 |
| Ardoy-MU | 69-75 |
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Santo Tomas-MU | 72-51 |
| **SENIORRAK, BIGARREN MAILA** | |
| Errotaundi-Soraluze BKE | 43-52 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Eskoriatza-Oiarso | 57-22 |
| **GAZTEAK MUTILAK, PARTAIDETZA** | |
| Gamon-Aloña Mendi | 39-63 |

## Areto futbola

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Tolosala-Eskoriatza | 4-2 |
| **BIGARREN MAILA** | |
| 2king-uak-Aretxabaleta | 4-2 |
| **HIRUGARREN MAILA** | |
| Hirukide Berrantol-Aloña Mendi | 3-0 |

## Errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Kanpanzar ART-Getxo | 17-0 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Getxo-Durango/Arrasate | 47-0 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Durango/Arrasate-Bera Bera | 10-13 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Durango/Arrasate-Bera Bera | 10-41 |


Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 20:45ean eta 22:30ean
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!


1.KONTZERTUA
urriak
22
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK ETA ABONUAK // SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO
BLACK RIVER
OÑATI
DESPREZIO
ARRASATE-BERGARA
LORD WITCH
BERGARA
LA-TOX
BERGARA
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
www.danbaka.com
BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK
www.hotsak.com
SHOT!
PIL-PILEAN
GAURKO
anboto komunikabideak
drogetenitturri
ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE
espalola

Roman Martinez > Besaide mendi elkarteko presidentea

# "Bide zaharrak aisialdi modu berrietara egokitu gura ditugu"



Roman Martinez, Besaideko presidentea. JULEN IRIONDO

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Besaide mendi taldea mendi hamabostaldia egiten dabil egunotan. Atzo, esaterako, *Arrasateko bide zaharrak berreskuratuz* mendi irteera egin zuten. Asmoa hori da, hain zuzen ere: garai bateko bideak berriro ere herritarrendako erabilgarri uztea.**

**Garai bateko bideak herritarren eskura jarri gura dituzue.**

Udalarekin elkarlanean gabiltza Arrasate inguruan egon izan diren bide zaharrak berreskuratu eta atontzeko. Industrializazioa etorri zenetik bide horien erabilpena zeharo aldatu zen, eta orain, aisialdi modu berrietara egokitu gura ditugu bide horiek.

Asmoa da bide zaharrak berreskuratu eta atontzea herritarren eskura jartzeko.

**Bideak txukuntzen hasiak zarete dagoeneko, ezta?**

Bai, Udalari gure asmoa azaldu genion eta haiek begi onez ikusi zuten proiektua. Batzarrak egiten gabiltza, eta, asmoa ona den arren, oraindik bide luzea dago egiteko.

Horregatik, bien bitartean, gu gure aldetik gabiltza bide batzuk txukuntzen. Bide sare horrek izango dituen zenbait adar ezagutu eta ezagutarazten. Gutxi zapaldutako Arrasate inguruko bideak dira.

**Honezkero berreskuratu duzue bideren bat?**

Bai, iaz berreskuratu genuen bat. Beteranoen martxa antolatzea egokitu zitzaion joan den urtean Besaideri. Hori aprobetxatuz, Udala eta Besaide arteko bidea berreskuratu genuen.

Udalak lagundu zigun bide hori garbitu eta atontzen. Eta atzoko ibilbide zati bat ere berreskuratutakoa da; hain zuzen, Epele erreka kontratik doan zatia.

**Nondik nora ibili zineten?**

Deialdi zabala izan zen. Monterronetik abiatu ginen, Loro, Mojategi, Epele... Akeletik Kanpanzar azpira joan ginen eta gero Meatzerrekatik ostera Monterronera. Familian egiteko moduko mendi ibilaldia da, gorabehera askorik bakoa.

**Auzoak elkarren artean lotzeko zeuden bideak dira?**

Arrasate ingurua baserriz josita dago –batez ere garai batean–. Bide zahar horiek balio zuten auzoak elkarren artean lotzeko; baina baita auzoetatik herrira joateko eta auzoetatik beste bailara batera pasatzeko ere.

Garai baten autorik ez zegoenez, guk uste duguna baino askoz ere mugimendu handiagoa egoten zen bide haietan. Gero, industrializazioa etorri zenean bideak erabiltzeari utzi genion eta galdu egin dira.

Inguruko baserritarrek zaintzen dituzte bide zati batzuk, baina asko galdu egin dira.

**Gainera, bide publikoen inbentarioa egin berri du Udalak.**

Bai; Udalak enpresa baten laguntzarekin egin du bideen inbentarioa. Ikusgai egon da herritarrendako. Orain, udalerriko bide publikoak zeintzuk diren identifikatzen dabil Udala.

Behin bide publikoak zeintzuk diren identifikatzen direnean eta ofizial egiten direnean, hurrengo pausoak erraztuko ditu. Horiek garbitu, bideen mantenua zehaztu, ardurak banatu... Horregatik diot honek luze joko duela.

**Mendi hamabostaldiaren barruan antolatutako irteera izan zen atzokoa. Eguaztenerako ere badago hitzordu bat.**

Bai, Josu Bereziartua alpinista azpeitiarrak hitzaldia egingo du. Ezaguna da *Al filo de lo imposible* programan kamera lanak egiten dituelako eta zortzimilakoak ere egin dituelako.

Oraingoan, baina, interesgarria izango da, kontatuko duelako familiarekin Himalaian egiten dituen irteerak. Topikoak apurtuko ditu: adibidez, umeekin leku garaietara ezin dela joan.

**Nolako erantzuna izaten du mendi hamabostaldiak Arrasaten?**

Iaz, esaterako, programa potoloagoa antolatu genuen: lau emanaldi antolatu genituen, eta, bitan jende asko egon zen arren, beste bietan ez horrenbeste. Eta horregatik, aurten bakarra egingo dugu.

Mendi irteeretan beti egoten da erantzun ona; alde horretatik, pozik gaude.

**Tradizioa duen hamabostaldia da?**

Bai, nik uste dut baduela tradizioa. Ez daukat irizpiderik esateko gora edo behera doan, baina mantendu egiten da. Gainera, Besaide erreferente bat da mendizaletasunaren sustapenean herri honetan.

**Datorren zapaturako mendi bizikleta martxa antolatu duzue.**

Zapatuan 09:30ean Musakolan da hitzordua. Izena aurrez eman behar da: federatuek 5 euro ordaindu behar dute eta ez federatuek 10 euro. Nahiko ibilbide gorabeheratsua izango da. Amaieran luncha egongo da.

**Ze egoeratan dago Besaide mendi elkartea?**

2009an zuzendaritza batzordea berritu zen. Gaur egun bederatzi lagun gaude zuzendaritzan eta sail bakoitzak bere kideak ditu. Ilusioz eta lanerako gertu gaude. Gure agintaldia 2013an amaituko da. Gure asmoa da harrobia lantzea eta erreleboa bermatzea. Hori izango da gure lana.

**"Asmoa da bide zaharrak berreskuratu eta atontzea herritarren eskura jartzeko"**

**"Iaz, esaterako, beteranoen martxarako bide zati bat berreskuratu genuen"**

**"Eguaztenean, Josu Bereziartua alpinistak Himalaian familiarekin nola ibili azalduko du"**

**"Mendi elkarteko zuzendaritzan gaudenen ardura da etorkizuna bermatzea"**

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > SARE SOZIALAK

# Sare sozialak: isolamendua ala sozializazioa?

Ondo erabiltzen eta kudeatzen badira sare sozialak tresna oso baliagarriak direla dio Iratxe Esnaolak; erabilera sustatu egin behar dela uste du

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

"Egun, kezkagarriagoa da haur eta nerabeek sare sozialak ez erabiltzea, bertan pasa dezaketen denbora kantitatea baino". Asteon irakurri diogu Iratxe Esnaolari *guraso.com* webgunean. Sare sozialen erabilera sustatu egin behar dela defendatzen du Esnaolak, gazteei komunikaziorako baliagarriak zaizkielako. "Ohartu gabe, baliagarria zaie baita ere gaitasun sozial eta teknologikoen aldetik", esan du.

*Guraso.com* webgunean osorik irakurri ahalko duzuen artikuluan sare sozialak zer diren eta zenbat alde positibo dituen azaltzen du Esnaolak, besteak beste.



Informatika eskolan. GOIENKARIA

**ERABILERA ARDURATSUA**

Haur eta gazteei sare sozialen erabilera arduratsua egiten erakutsi behar zaiela uste du Esnaolak. Horretarako, baina, "gaia ezagutu egin behar da. Ibili, ikasi eta gero erakutsi", aipatzen du.

Horren harira, sare sozialei lotutako arriskuen artean pribatutasuna eta haur eta nerabeen pertzepzio faltsua nabarmentzen ditu. Konfiantzazko komunikazioa eta sare sozialen erabileraren inguruan arau zehatz batzuk adostea proposatzen du. "Behin hori ondo eginda, sozializa daitezela. Heda eta elika ditzatela euren harremanak (...). Lortu behar dena sare sozialen potentzialtasuna probestea da".

**HEZIKETA** > NEGOZIAZIOA

## Nerabeekin negoziazioa da bidea: eseri eta hitz egin

**L.Z.** > ARRASATE

Poltsikorako diru gehiago eskatzen digute, etxera beranduago etorri nahi dute, tatuaje edo *piercing* bat egin nahi dute... nerabezaroan aldaketa handiak daude eta sasoi horretan negoziazioa da bidea. Beatriz Ezeizak pista batzuk eman ditu, asteon, Euskadi Irratiko *Mezularia* saioan.



Nerabeak. GOIENKARIA

**EGOKIENA, BIZKAR-ZORROA**

"Lehenengo eta behin, erlatibizatzen ikasi behar dugu, gauzak lasaitasunez hartzen", esan du. "Eskaera horiek oso normalak dira nerabezaroan. Okerreko joera da nekatuta gaudelako edo ados ez gaudelako inongo hausnarketarik gabe ezetz borobila ematea".

Nerabearekin eseri eta galdetu zer den nahi duena, zergatik eta zertarako. Defentsiban jarri gabe hitz egingo dugu; sermoiak, mehatxuak, konparaketak eta sarkasmoa alde batera utzita. Gero, gurasoak bere ikuspuntua emango du. "Uste dut...", "Arduratzen nau...". Eta "hortik aurrera negoziazioa zabalduko dugu", aholkatu du Ezeizak. "Eskaera onartzen badugu, argitu egingo dugu baldintzak zeintzuk diren; esaterako, kostua bere poltsikotik ordaintzea (...). Erantzuna ezezkoa bada, arrazoitu egin beharko dugu. Ezezkoa ematea gurasoen eskubide bat da eta batzuetan beharrezkoa da, baina beti arrazoitu egin behar da". Oldarkortasunez ez jokatzea eta bikotea ados egotea ezinbestekoa da.

**OSASUNA** > BELDURRAK

## Haurtzaroko beldurrak oso ohikoak dira

**L.Z.** > ARRASATE

Zaratei, bakarrik gelditzeari, iluntasunari, fantasiazko gizakiei... haurtzaroan beldur horiek normalak dira. Komeni da kontuan hartzea eta gure jarrerarekin umearengan antsietate handiagorik ez sortzea.

**KONTUAN HARTZEKOAK**

Normala da umeak beldurrak izatea eta adinarekin beldur horiek aldatzen joatea; umearen garapenaren barruan daude. *Consumer* aldizkarian irakurri dugu neskek errazago adierazten dituztela beldur horiek; mutilen erreakzioa fisikoagoa da, gorputza lesionatzen dute, besteak beste.

Garrantzitsua da beldurra, antsietatea eta fobiak ondo bereiztea. Konkretua den zerbaitek sortzen du, normalean, beldurra: txakurrek, ezezagunek, iluntasunak... Fobia intentsitatean pauso bat gehiago da. Bihotz taupaden erritmoa areagotu egiten da eta lehenbailehen tratatzea komeni da.

**NOLA JOKATU**

Adituen aholkua da umeen beldurrak serio hartu behar direla. Umeak eskubidea du beldur hori sentitzeko. Gainera, ez da ahaztu behar kaltegarria izango dela umea beldurrari aurre egitera behartzea arazoa areagotu egin badaiteke. Progresiboki egin beharko lioke aurre arazoari. Iluntasuna bada arazoa, argiak ez dira lehenengotik guztiz itzali behar, polikipoliki egingo dugu lan hori. Eta hezitzaileek lasaitasunez jokatu behar dute, horrelako egoeretan umea oso sentiberak baitira erreakzio horietara.



Umea pozik. GOIENKARIA

> GURASO ESKOLA

### Arrasateko Udalaren Guraso Eskolan izena emateko epea hilaren 22ra arte dago zabalik

Urtero moduan, Arrasateko Udaleko Prebentzio Sailak Guraso Eskola antolatu du. 2 eta 16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoendako saioak izango dira eta hiru talde egingo dituzte: 2-5 urte, 6-11 urte eta 12-16 urte. Azaroan hasiko dituzte eskolak, ordu eta erdiko sei saio izango dira eta astean zehar, arratsaldez, egingo dituzte. Informazio gehiago BAZen edo Arrasateko Udaleko Prebentzio Sailean aurkituko duzue.

> TERTULIA

### Eguaztenean, hilak 20, nerabezaroa izango dute hizpide Goiena Telebistako tertulian, 20:45ean

Datorren astean emango dute Goiena Telebistan gurasoei zuzendutako bigarren tertulia saioa. Nerabeak izango dituzte oraingo honetan berbagai. Mahaiaren bueltan izango dira Arrasateko kalehezitzaile Iñaki Elkoroiribe, Aranzadi ikastolako irakasle Yolanda Juaristi eta Arrats elkarteko kide Joxe Mari Larrañaga. Jarrera aldaketak, erantzun txarrak, gurasorik gabeko lehenengo irteerak, arauak eta mugak... aztertuko dituzten gaien artean.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> MOCHILA 21**
Arkupeko ikuslegoak bat egin zuen Down Sindromea duten gaztetxoekin **> 30**



**> LELENA ROCK**
Herritarrek erantzun ona eman zieten egubakoitzeko eta zapatuko kontzertuei **> 30**



**> ERAKUSKETA**
Txotxongilo erakusketa zabaldu dute Bergarako Aroztegi aretoan, hilaren 24ra arte **> 31**

# Mahai-futboleko trikimailuak ikasi zituzten gaztelekuan

**IKASTAROA**
Miguel Martinek ikastaroa egin zuen 15 bat gazterekin

**TXAPELKETA**
Urriaren 29an 15. mahai-futbol txapelketa egingo dute



Ikastaroan parte hartu zuten gazteetako batzuk Miguel Martinekin (bigarrena eskuinetik) jokatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Mahai-futbola izan zen protagonista zapatuan Oñatiko gaztelekuan. Kirol horren gaineko trikimailuak zeintzuk diren ikasteko aukera izan zuten herriko hainbat gaztek, Miguel Martinen eskutik. Bigarren aldiz antolatu dute gaztelekuko arduradunek mahai-futboleko ikastaroa. Helburua: oinarrizko arauak eta teknikak lantzea.

15 bat gaztek eman zuten izena ikastaroan. Batzuek iazko ikastaroan parte hartu zuten. Hasteko, oinarrizko azalpen batzuk eman zizkien Martinek arbelean: jokalariak nola jarri behar diren, zeintzuk diren gorde beharreko zuloak, nola defendatu eta nola erasotu, eskumuturra nola mugitu... Ondoren, bideo batzuk ikusi zituzten. Haietan, mahai-futboleko maisuek eta punta-puntako jokalariek nola jokatzen duten ikusi zuten. "Izugarria da zein azkar jokatzen duten. Eskumuturra abiadura handian mugitzen dute", esan zigun Miguel Martinek.

Teoria landu ondoren, jokoan hasi ziren. Euren artean jokatu zuten, eta baita irakaslearen kontra ere. "Mahai-futbolean trebea izateko jokoan sortzen diren zuloak ondo estali behar dira. Hori da kakoetako bat: atzeko lerroan tentsioa mantentzea ezinbestekoa da irabazteko aukerak izateko", azaldu digu Martinek.

**BIKOTE OREKATUA**

Punta-puntako jokalariek duten azkartasuna entrenamenduetan lantzen dela esan zien ikastaroan: "Eskumuturra indartzeko behin eta berriz jokatu behar da. Era berean, oso inportantea da txapelketa edo lehia jokatu aurretik eskumuturra berotzea".

Mahai-futbolean banaka edo binaka joka daiteke. Errazagoa eta erosoagoa da bikoteka jokatzea, baina bikotea orekatua egotea ezinbestekoa da."Jokalari batek atzeko bi lerroak hartzen ditu eta besteak erdikoa eta aurrekoa. Bata zein bestea onak badira euren lerroetan, beti jokatuko dute berdin. Atezain bat ona denean, oso zaila da gola egitea. Baina aurrelaria ona bada, oso zaila da haren jaurtiketak geratzea. Hortaz, estrategia oso inportantea da mahai-futbolean". Hori horrela, hainbat jokaldi estrategiko izatea aholkatu zien gazteei: "Behin eta berriz jokaldi berdina egiten baduzu, kontrarioak nola jokatzen duzun antzemango dizu. Kontuan hartu behar dugu lehia bateko jaurtiketen %90 erdiko lerroan geratzen direla. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da atzeko lerroa gainditzea, gola egin ahal izateko".

Bukatzeko, esan zien gazteei teknika ona izatea inportantea dela, baina abiadura izatea ezinbestekoa: "Bestela gola egitea oso zaila da".

## Hilaren 29an topalekuko 15. mahai-futbol txapelketa jokatuko dute gaztelekuan

**Gaztelekuko txapelketa beteranoena egingo dute hilaren 29an gaztelekuan, 18:30ean. Hain zuzen ere, 15. mahai-futbol txapelketa. Interesatuek urriaren 28a baino lehen eman behar dute izena Gazte Informazio Puntuan. Bikote onenak dagozkion sariak jasoko ditu azaroaren 5ean egingo duten sari banaketa ekitaldian. Jarraian, luncha egingo dute gaztelekuan, txapelketan parte hartu duten guztiekin.**

**Miguel Martin** > Irakaslea

## "Bergaran eta Eskoriatzan maila handiko jokalariak zeuden"

**M.B.** > OÑATI

**Miguel Martin mahai-futbol zale amorratua da. Gaztetan herri mailako eta Euskal Herriko txapelketetan lehiatu zen.**



J.ARANTZABAL

**Nola hasi zinen mahai-futbolean jokatzen?**

Kale Zaharrean zegoen jolas-aretoan hasi nintzen. Ordu asko egiten genituen han. Bestalde, herriko hainbat tabernatan mahai-futbolak zeuden.

**Euskal Herriko hainbat txapelketatan parte hartu zenuen.**

Herrian antolatzen zituzten txapelketak irabazita, Euskal Herrikoetarako sailkatu nintzen. Orduan maila ona zegoen inguruan. Adibidez, Bergaran eta Eskoriatzan maila handiko jokalariak zeuden.

**Nolatan hasi zara berriro ere?**

Semearekin hasi nintzen jokatzen, eta konturatzen nintzen galdutako ohitura zela. Orduan proposatu nien gaztelekuko arduradunei ikastaroa egitea. Era berean, mahai-futbola indartzeko neguan ligaxka bat antotzeko proposamena egin diet. Ligaxka eginda ikastaroan ikasitakoa lantzeko eta hobetzeko aukera izango lukete.

**KRONIKA** > MOCHILA 21

# Musikari izateko ere gai direla erakutsiz

**NON:** Aretxabaletako Arkupen.
**EGUNA:** Zapatua, urriak 16.
**ZENBAT JENDE:** 60 lagun inguru.
**IRAUPENA:** 40 minutu.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

*Somos la banda mochila 21 y hemos venido hasta aqui a meter mucho ruido.* Mochila 21 taldea da eta, euren ereserkiaren leloak dioenez, zarata egitera etorri ziren Iruñetik Aretxabaletara. Arkupeko Zaraia aretoko agertokia txiki geratu zen taldea osatzen duten 20 lagunendako. Horietatik 12 Down sindromea dutenak dira: perkusioan eta haizezko instrumentuetan fin-fin aritu ziren.

Ikusleek bestelako emanaldi batez gozatzeko aukera izan zuten. Kontzertu motza bezain bizia izan zen, eta Down sindromedun neska-mutikoek musikari izateko ere gai direla argi eta garbi utzi zuten; mugak gainditzearen beste adibide bat izan zen Arkupekoa. Izan ere, hein handi baten, musika sentimendua da, eta sentimenduek ez dute adimenaz ulertzen.

**'EL DROGAS' EZ, BAINA 'KUTXI' BAI**

*Intro*-aren ostean, *We will rock you* abestiarekin hasi zuten emanaldia. Lehen kantutik ikuslegoa irabazi zuten eta lotsaren izotza apurtu ostean, musikaren jarioak hartu zuen protagonismoa.

Barricada taldeko Enrique Villareal *El Drogas* Mochila 21 proiektuko kide da baina zapatuan ez zen egon. Hala ere, *Blanco y negro* bertsioa ez zen falta izan. *El Drogas* ez, baina Marea taldeko Jose Carlos Romero *Kutxi* izan zen Arkupen: "Entseatzeak esfortzu handia eskatzen badu ere, taldekideak gero eta gusturago daude eta horrek asko gogobetetzen du". *No somos distintos* abestia egin zuen *Kutxi*-k taldearendako; Arkupen abestu zuen.



*Kutxi* Marea taldeko abeslariak eta aldi berean Mochila 21 taldeko kide denak bi kantu abestu zituen. JOSETXO ARANTZABAL

ZER IRUDITU ZAIZU KONTZERTUA?



**Beñat Barrutia**
Aretxabaleta

"Oso emanaldi polita izan da. Asko gustatu zaizkit gitarrak eta gehien gustatu zaidan abestia *Mochila 21* izan da, euren ereserkia".



**Juan Etxart**
Iruñea

"Ekimen oso polita da. Motza egin zait, baina pixkanaka doaz. Seguru nago egiten ari diren lanarekin errepertorioa luzatuko dutela".



**Marian Porcel**
Arrasate

"Izugarria izan da. Lan handia egin dute, txalogarria. Giro aparta egon da, kontzertua nahiko motza egin zaidan arren".



**Gabriel Gainza**
Iruñea

"Oso interesgarria da eta jotzen duten bakoitzean ikustera etortzen gara. Lan mardula egin dutela ikusten da".



**Jose Carlos Romero 'Kutxi'**
Berriozar

"Euren abestirik ez zutela jakin nuenean kantu bat egitea erabaki nuen. Entseatzera behin joan eta ezin izan dut alde egin".

**MUSIKA** > LELENAROCK JAIALDIA

# Arrasateko rockaren lau erakusleiho

Rock, garage eta surf doinuak entzun ziren egubakoitz eta zapatu iluntzean Taupa tabernaren terrazan

**ANDER MONDERO** > ARRASATE

Beste urte batzuetan Taupa Festibala zena, aurten Lelenarock izenarekin etorri zaigu. Hori ez da izan jaialdiak izan duen aldaketa bakarra, ordea. Aurten bi eguneko jaialdia egin dute, egun bakarrekoa beharrean.

Lelenarock jaialdiko oholtza gainera igotzen lehenengoa Los Cretinos izan zen. Jotzen hasi ahala, jendea tabernara gerturatzen hasi zen eta jende jarioa ez zen geratu taldeak emanaldia bukatu arte. Beti bezala, laukote arrasatearrak dantzan jarri zituen lehenengo lerroan zeuden jarraitzaileak.

Ondoren, Cool Circusen txanda iritsi zen. Taldeak Arrasaten emango duen azkeneko kontzertua izan zen. AC/DCren abesti batekin hasi zuten kontzertua eta *Spend All You've Got* eta *More Circus ThanEver* diskoetako abestiak jo zituzten; tartean, baita Misfits taldearen abesti bat ere.

**ZAPATUAN ERE JENDEZ LEPO**

Eguraldia ez zen oztopo izan zapatuko kontzertuetarako. Euria zela-eta eszenatokia lekuz aldatu behar izan zuten; hala ere, leporaino bete zen Taupa tabernako terraza Bitter Honey eta Los Galerna taldeak ikusteko.



Cool Circus taldeak egubakoitz iluntzean jo zuen. JOSETXO ARANTZABAL.

> ZINEMA

### Aratzekoak laugarren sailkatu dira Gorgonzolan (Italia)

Aretxabaletako Aratz taldekoak Gorgonzolako (Italia) film laburren lehiaketan lehiatu dira aste bukaeran *Are-Baleko sekretoa* lanarekin. Laugarren tokian sailkatu dira, eta epaimahaiaren aipamen bat jaso dute: *Fideltasunari eta poztasunari* delako aipamena.

Beste zortzi filmarekin lehiatu ostean, finalerako txartel barik geratu ziren aretxabaletarrak. Hiru labur lehiatu ziren azken txanpan, eta Aratzekoek laugarren tokiarekin konformatu behar izan zuten. Atzegik Donostian egindako lehiaketan lehen saria jaso zutelako egon da Aratz Italiako txapelketan.

Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, etxerako autobusa hartu zuten.

**Armando Angeles** > 'Fantasia mekanikoak' erakusketako arduraduna

# "Titiriteroen lana ezagutarazi nahi dugu"


Armando Angeles, eguen arratsaldean, erakusketa muntatzen. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Taun-Taun taldearen eskutik eta nazioarteko X. txotxongilo mostraren barruan, *Fantasia mekanikoak* delako erakusketa ireki zuten egubakoitzean Bergarako Aroztegi aretoan. Txotxongiloak Diego Damian Gilardik egin ditu eta Armando Angeles erakusketako arduraduna da. Azken horrekin hitz egin dugu.

**Zer ikus daiteke Aroztegi aretoan dagoen erakusketan?**

20 txotxongilo interaktibo dira hemen erakusgai daudenak; horiekin batera 20 diseinu-orri ere daude. Erakusketara etortzen direnek aukera dute horien mekanismoak ukitzeko, txotxongilo bakoitzaren mugimendua zuzenean ikus dezaten.

**Zer-nolako txotxongiloak dira?**

Mekanismoak dira, estrukturak, hain justu ere. Baina ez daude ikuskizun baterako eginak, erakusketa baterako baizik, eta, hortaz, ainguratuta daude. Hemengoak finkoak dira; txotxongiloak askoz libreagoak dira. Baina ikuskizunetakoak ezin dira ukitu, eta hauek erabiltzeko daude.

**Zer-nolako materialekin daude eginda?**

Gehienetan, birziklatutako materialak erabili ditugu. Esaterako, hainbatetan kontserba latekin egin ditugu txotxongiloen egiturak. Mekanismoak, bestalde, oso xumeak dira: palankak eta penduluak erabili ditugu horietako askotan. Dena dela, konplexuagoa den bakarren bat ere badugu: animalia batek sistema elektriko bat du, hegalak mugi ditzan eta begiak berdeak izan daitezen. Horretaz gain, beso mekaniko bat ere badugu erakusgai: horri palankak mugituz, atzamarrak mugitzen zaizkio.

**Nola egiten dira?**

Ideia buruan daukagunean, normalean, paper baten marrazten dira eta hortik abiatuta garatzen joaten gara. Ideia papera eramatea da zailena. Ingeniaritzako hainbat printzipio kontuan izaten baditugu ere, esan bezala, mekanismo sinpleak dira. Gu ez gara ingeniariak, artisauak baizik.

Irudimena ere asko lantzen dugu. Esaterako, *Terminator* ikusita ideia asko atera daitezke. Objektuek ere ideiak ematen dizkizute; esaterako, ping-pong pilotekin animalien begiak egiten ditugu.

**Zer lortu nahi duzu erakusketarekin?**

Herritarrek txotxongiloen mundua ezagut dezaten nahi dugu. Publiko moduan parte hartzeaz gain, zuzenean ikus dezatela zelako dibertigarria den horiek esku artean izatea. Azken finean, titiriteroaren lana ezagutzea da helburuetako bat; oso lan dibertigarria da hori.

**"Mekanismoak xumeak dira; palankak eta penduluak erabili ditugu"**

**Oker ez banago, ez da ohiko erakusketa...**

Bai, hala da. Erakusketak bisita gidatua du; txotxongiloak manipulatzeko aukera ematen diegu horretan. Horrez gain, bideo bat ere jartzen dugu: txotxongiloen egile Diego Damian Gilardik panpinak nola egin diren azaltzen die.

**Aurretik ere beste hainbat tokitan egon zara erakusketa honekin. Jendearendako, ze da deigarriena?**

Normalean, bestelako erakusketetan begiratzera bakarrik ez da mugatzen jendea; erakusgai dagoena ukitu ere egin nahi du. Hori da, hain zuzen, gehien erakartzen duena jendea, materiala ukitu ahal izatea.


Egubakoitzean zabaldu zuten erakusketa. JOSETXO ARANTZABAL

## Hilaren 24ra arte bisitatu ahalko da

*Fantasia mekanikoak* delako erakusketa ikusgai egongo da Bergarako Aroztegi aretoan urriaren 24ra arte, martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketa Taun-Taun taldeak bi urtean behin antolatzen duen nazioarteko txotxongilo mostraren testuinguruan antolatu dute. Mostra urriaren 22tik 24ra bitartean izango da.

**ERAKUSKETA** > ARGAZKIAK

# Kulturen arteko nahasketa irudietan islatuta


Erlijioen arteko nahasketa. FIDEL RASO


Etorkin talde bat. FIDEL RASO

Azaroaren 7ra arte 65 argazki daude ikusgai; egubakoitzean inauguratu zuten erakusketa

Oñatiko Ilunpetan argazki taldearen eskutik beste erakusketa bat dago kultura etxean: *Muga. Kultura arteko nahasketa* delako argazki erakusketa. Joan den egubakoitz arratsaldean inauguratu zuten, Koro Cantabrana argazkilariaren solasaldiarekin.

Erakusketak Espainiaren eta Marokoren arteko mugako egoera jorratzen du, migrazio, integrazio-politika eta aniztasunaren ikuspuntutik. Hain justu ere, Ceutan eta Melillan erlijio eta kultura ezberdineko pertsonen elkarbizitza islatzen duten irudi ikusgarriak ikus daitezke. Horietan, besteak beste, paperik gabekoak, poliziak eta lan egiteko muga pasa behar duen jendea azaltzen dira.

**65 ARGAZKI**

65 argazki dira, eta ondoan testuak daude, irudia ulertzen laguntzeko. Argazkien egileak lehen aipatutako Koro Cantabrana gipuzkoarra eta Fidel Raso bizkaitarra dira eta testuak Tamara Crespok idatzi ditu.

Azaroaren 7ra arte bisita daiteke erakusketa, Oñatiko kultura etxeko erakusketa gelan, honako ordutegian: astelehenetik domekara 18:00etatik 20:00etara bitartean.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**

**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ASTE BUKAERA...

## Ritxar Fernandezekin



Ritxar Fernandez bateria jotzeko makilekin eta Gari semearekin Antia parkean. MIREIA BIKUÑA

# "Gari semeari eta musika talde berriari eskaintzen diet aisialdiko denbora"

Ritxar Fernandez korrikalari oñatiarra Atletismo Federazioko entrenatzaileen organigramako kide da

Eko D Bull taldearekin diskoa prestatzen dihardu: hilaren 20an sartuko dira grabazio estudioan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ritxar Fernandezek (Oñati, 1970) Oñatin zuen kirol-denda itxi zuen uztailean. "Krisiagatik zapatilen banatzaile askok porrot egin zuten. Hori horrela, lan egiteko moduan aldatu beharra neukan, eta denda ixtea erabaki nuen", dio. Ondorioz, egindako ikasketak aprobetxatuz, curriculumak bidali zituen, eta kirol teknikari moduan lan egiteko aukera sortu zitzaion. "Goi mailako kirol teknikari ikasketak egin ditut, eta horiek baliatuta proiektu batzuk ditut eskuetan. Kirolariei plangintza egiten diet", azaldu digu.

Goi mailako kirolariekin eta harrobikoekin dihardu lanean: atletismoan dihardutenekin eta beste kirol batzuk lantzen dituztenekin. "Askotariko kirolariekin egiten dut lan. Nork bere helburuak ditu eta bakoitzaren araberako plangintza egiten dut. Bestalde, herri mailako hainbat korrikalariri entrenamendurako plangintza egiten diet", dio.

Bestalde, Gipuzkoako Atletismo Federazioaren entrenatzaileen organigramako kide da, eta denboraldirako entrenamenduak antolatzen dituzte.

Garbi dagoena da Fernandezen agendan lana eta kirola eskutik joan direla beti. "Kirolzalea naiz. Duda barik, gustuko duzuna eginez gero, lanera aldarte onarekin zoaz", esan digu Fernandezek.

**SEMEA ETA ATLETISMOA**

Lan berriarekin, ez dauka erlojuari begira egon beharrik. Horretan ere aurrerapausoa eman duela dio: "Denda bateko ordutegia oso lotua eta sakrifikatua da. Egun dudan lanarekin etxetik egiten du lan, askotan gauez, eta horrek aukera ematen dit denbora gehiago aprobetxatzeko".

Astegunetan eta aste bukaeretan libre duen denbora Gari semearekin edo entrenatzen pasatzen du. Gari semeak 19 hilabete ditu, eta, emazteak etxetik kanpo lan egiten duenez, Fernandez arduratzen da semeaz: "Gari jaio aurretik utzi nuen atletismoa, eta ordutik hona umeari begira eman dut ia denbora guztia. Gauza asko egiten ditugu elkarrekin: eskolara eramaten dut, jolastu egiten dugu...".

Semearekin egon den denbora guztian ez du korrikarik egin, baina uztailean entrenatzen hasi zen berriro. Ordutik hona asko sufritu du. "Lehiaketa utzi nuenean baino urtebete gehiago daukat, kilo batzuk gehiago eta sufritzeko gogo txikiagoa. Hortaz, oso zaila da sasoi onean ipintzea", dio.

Datorren urteko udaberrian maratoiak korritzeko moduan egotea espero du, baina "asko sufrituta".

**ETXEAN LASAI**

Atleta profesionala izan den urteetan hara eta hona ibili zen. Orain, asko baloratzen du etxean egotea. "Amsterdamen, Rotterdamen, New Yorken... egon naiz korrika egiten. Bidaia asko egin ditut. Orain, etxean egotea atsegin dut. Abuztuan Oñatin egon gara. Niretzat oso inportantea da lasai ibiltzea, agenda barik, eguna planifikatuta eduki barik", esan digu.

### "Eko D Bull taldekoekin disko berria grabatuko dut urte bukaera baino lehen"

Ritxar Fernandez korrikalari moduan ezagutzen dute gehienek. Baina banaka batzuek Argi Ibili taldeko bateria-jotzaile moduan ere ezagutzen dute. Iazko Atzeko kaleko jaietan egin zuten kontzertua, aspaldiko partez. Orain, talde hartako bost kideetatik lauk talde berria sortu dute: Eko D Bull. "Jatorrizko Argi Ibili taldeko kide batek proiektu berriak zituen, eta geratu ginen laurok izena aldatu eta musika egiten jarraitzea erabaki genuen. Atzeko kaleko kontzertua egin genuenetik kantuak konposatu ditugu, eta eguaztenean sartuko gara grabazio estudiora", esan digu. Hamabost egunean behin entseatzen dute.

Musikazalea da Fernandez, eta zuzenekoak maite ditu. Aurten, AC/DC eta Pearl Jam taldeen zuzenekoetan egon da, Bilbon. "Izugarria izan zen. Gazteagoa nintzenean hara eta hona ibiltzen nintzen zuzenekoetan, eta sentsazio hori berreskuratzea ikaragarria izan da", kontatu digu.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo zerbitzari zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 646 07 79 60 edo 943 77 01 31.

**Debagoiena.** Neska gertu etxean zein egoitzatan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. 629 80 77 73.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610 60 62 29.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut. 638 93 11 48.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671 15 96 97.

**Debagoiena.** Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko edo tabernetan lan egiteko. 648 46 90 51.

**Debagoiena.** Sukalde eta komunak berriztatuko nituzke, prezio onean. 663 72 37 44.

**Donostia.** Arratsaldez lan egingo nuke , haurrak zaintzen edota etxeko lanak egiten laguntzen. Irakaslea naiz, diplomaduna eta lizentziaduna. 628-04 15 26

**Donostia.** Haurrak zaintzen edota etxerako lanak egiten laguntzeko prest nago, arratsaldez. Irakaslea naiz; ordutegi malgua dut, eta diplomaduna eta lizentziaduna naiz. 628-04 15 26

**Durango.** Emakume arduratsu bat prest dago orduka umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzeko lanak egiteko. Juana. 670-67 46 41.

**Durango.** Neska euskalduna eta esperientziaduna astelehenetik ostegunera, ordubete inguruz, haur txikiak zaindu edo 6 eta 10 urte bitarteko haurrei edozein gaitako eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 630-86 69 74 (Miren).

**Durango.** Edo inguruetan, umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako ere. Arratsaldetan, gauetan eta asteburuetan. Erreferentzia onak. 650-61 01 94.

**Durango.** Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako lan baten bila nabil. Lanaldi osorako edo erdirako. Erreferentzia onak. 638-43 79 01.

**Durango.** Neska euskalduna, astelehenetik ostiralera, arratsaldetan umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako irakaslea, gaur egun goizez irakasle moduan lan egiten dut. 635-70 69 86

**Gasteiz.** Neska euskaldun bat, umeak zaintzen esperientzia duena, prest dago umeak zaintzeko edo klase partikularrak emateko. *irati_sorondo@hotmail.com*. 685-77 18 95

**Gernika-lumo.** Neska euskalduna, eguerdietan umeak zaintzeko prest. Gernika inguruan, busturialdean. Kotxea daukat. 676-26 27 66

**Lezo.** Neska euskalduna (E.G.A) eskaintzen da haurrak zaintzeko, arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina. 667-23 93 72

**Olaberria.** Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko edo baita adineko jendea zaintzeko, Haur hezkuntzako ikasketak eginda eta EGA titulua dauzkat, umeekin lanean esperientzia. Etxeko lanetan laguntzeko ere prest egongo nintzateke, ez daukat arazorik inguruko herrietara mugitzeko. 628-45 37 34

**Oñatiko neska arduratsua** arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 13:00etatik aurrera libre nago. 618 09 47 87 edo 943 71 62 03.

**Tolosa.** Kaixo! mutil gaztea, lan bila. Edozein lanetarako prest nago, esperientzia: hostalaritzan, almazenetan, auto tallerretan, fabrikako askotariko lanpostutan(zerra, grua, femich, prentsan, soldaduran...) 647-14 23 58

**Zaldibar.** Neska garbiketa lanetan edo dendetan lan egiteko prest. Kotxea dut. 659-97 32 24

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Italierako** eskolak emango dizkidan norbaiten bila nabil. 685 73 06 80.

**Kontabilitate eta ekonometria** eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36.

**Latinezko eskolak** jasoko nituzke. 688 61 28 40.

### 502. EMAN

**Abadiño.** Fisikako ikaslea durangaldean klase partikularrak emateko prest. Lh, DBH edo batxilergokoak. Esperientzia. 645-72 02 36

**Azpeitia .** Lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako ingeles klaseak ematen ditut Ingeles irakasle tituluduna. 669-27 45 60

**Arrasate.** Neska euskalduna gertu DBHrainoko eskola partikularrak emateko. Goi mailako ikasketak egiten ari naiz. Ikaslearen etxera bertara joateko aukera. 10 euro orduko. 16:00etatik aurrera deitu. 690-66 19 80

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Goi mailako ingeniari industriala naiz. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... maila guztiak, unibertsitatea barne. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut. Arlo guztiak, Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Ingelesa ere ematen dut. 619 17 68 30.

**Arrasate.** Ikasle euskalduna gertu Lehen Hezkuntzako edo DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei eskola partikularrak eman edota etxeko lanekin laguntzeko. Norberaren etxean egiteko aukera. 607 96 78 65.

**Arrasate.** Neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian diplomaduna. Esperientziaduna. 652 73 14 44.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikasle euskalduna arratsaldez eskola partikularrak emateko prest. 13:00etatik aurrera deitu. 636 12 05 79.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 64 14

**Azpeitia.** Magisteritza ikasketak dituen neska gaztea, Lehen hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko prest. 628-91 27 98 (Ane)

**Beasain.** Beasainen eta Ormaiztegin klase partikularrak emango nituzke, haur, Lehen edo Bigarren hezkuntzan. lizentziaduna naiz, EGA dut eta esperientzia daukat. 620-00 25 12. *partikularrak@gmail.com*.

**Beasain.** DBHko eta Lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umeei) klase partikularrak goierrin ematen dizkien psikologiako 5. mailako ikaslea naiz. 615-71 40 84.

**Bilbo.** Umeei klaseak eman edo eskolako lanak egiten laguntzeko prest.667-00 53 36

**Bergara.** Ingeleseko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Azterketetarako gertatzen da. 618 91 32 89.

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak eskola partikularrak ematen ditu. 636 16 30 10 edo 943 76 49 41.

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegi malgua. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676-89 50 13

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

**Bergara.** Kaxoi flamenkoko eskolak (bakarkakoak zein taldekoak) ematen dira, edozein musika estilori aplikatutakoak. Guille. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 49 07 99 edo 943 76 34 82.

**Bergara.** Pintura eta marrazketa eskolak ematen dira. 943 76 40 14 edo 651 74 21 54.

**Debagoiena.** Psikologiako laugarren mailako ikaslea arratsaldez eskola partikularrak eman edota haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Zorione. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 97 46 65.

**Debagoiena .** EGA edo 4. He eskuratu nahi? Euskal filologian lizentziaduna prest eskolak emateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-84 53 68.

**Debagoiena.** Ikasle euskalduna gertu Lehen hezkuntzako edo dbhko 1. Eta 2. Mailetako ikasleei eskola partikularrak eman edota etxeko lanekin laguntzeko. Norberaren etxean egiteko aukera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607-96 78 65

**Donostia.** Frantseseko klase partikularrak ematen ditut. Frantses filologian lizentziaduna eta esperientziaduna. Maila eta adin guztietarako. Delf, Dalf eta Hizkuntz eskola ofizialeko azterketak prestatzen laguntzen dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626-60 37 75.

**Donostia.** Klase partikularrak Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, Heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635-74 61 76

**EGA edo 4. HE** eskuratu nahi? Euskal Filologian lizentziaduna prest eskolak emateko, EGA edo 4. HE lortzeko. Deitu eta hitz egingo dugu. 679 84 53 68.

**Elorrio.** Elorrion klase partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675-70 61 05.

**Gernika-lumo.** Lehen hezkuntzan eta Musika hezkuntzan diplomatua, begirale tituluarekin eta esperientziaduna klase partikularrak emateko, umeak zaintzeko edo euskal herriko edozein gunetanirakasle edo begirale bezala lan egiteko prest. 687-95 06 05

**Oñati.** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. Dbh nahiz lanbide heziketako ikasleei. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646-42 13 63

**Sakana .** Lehen hezkuntzako irakaslea, klase partikularrak edo umeak zaintzeko prest. 676-22 20 52.

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoan. Taldeka edo bakarka.Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664-16 02 68*continental56@hotmail.com*

**Zaldibar.** Gazte euskalduna naiz, eta lan bila nabil. Informatikako goi-ikasketak ditut. Zaldibar edo inguruetan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-94 89 23.

**Zaldibar.** Neska euskaldun bat lan bila dabil, garbiketak egiteko, portaletan, dendetan edo lantegietan. Autoa eta gidabaimena.Zerbitzari moduan ere lan egin dezaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-97 32 24 (Izaskun).

## 6/ MOTORRA

### 601. MOTORRA

**Clio familiarra salgai.** Clio Grand tour berria. Dynamique 1.5 DCI 85 ZP. Gris zilarkara. 2 urte eta erdi. 30.000 km. Diesela. 12.000 euro. Aire egokitua, erreguladorea, limitadorea. Break. Airbagak. 5 ate. Bihurguneetarako argi gehigarriak. Aurreko kristal igogailu elektrikoak. Ixte sistema zentralizatua. Atzeko banketa 1/3-2/3. Cd. Garantia: 2012-01-22. Urteko errebisioa pasatu berri. 609-93 90 95.

**California t4 salgai.** 2400 diesela. 146.000km. Egoera onean. Sukaldea, hozkailua eta abar dauzka. 4 pertsonarentzako oheak (behean eta goian). 13.700 euro. 671-84 15 63. Jon.

**Kawasaki - versys 650.** Egoera onean, beti garajean. 2007koa da. 12.400 kilometro, gorria. Kutxa opari. Oharra: limitatuta dago. 4.500 €. 690-07 15 72.

**Volkswagen Passat** 2.500 TDI autoa salgai. Gris metalizatua. 10 urte. 200.000km. 2.500 euro negoziagarri. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 79 82 43 edo 943 79 97 17.

**Yamaha Jog Scooter salgai.** Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. Lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena orijinala. Beti egon da garajean. *stratokaster@gmail.com*. 650-17 22 85

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Indioilar beltzak salgai.** Urtebeteko bikote bat eta hiru hilabeteko hiru bikote. 943-79 96 55.

**Persiar katakumeak** salgai. Irailaren 9an jaiotakoak. Zuriak. Oso maitakorrak eta pentsua jaten hasi dira jada. Bi ar eta eme bat. Ikusteko aukera. Deitu zenbaki hauetara: 943 79 96 55 edo 685 72 46 86

**Rottweiler txakurkumeak salgai.** Espainiako txapeldunen kumeak dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605-75 91 42

**Setter ingeles** txakurkumeak salgai, 2010eko maiatzean jaioak. Oilagorretarako aproposak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 605-73 75 30

### 703. EMAN

**Cocker ingelesa** ematen da Arrasaten, ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria eta txakur ona da. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. Deitu zenbaki hauetara:943 79 82 43 edo 943 79 97 17

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Arratoi-txakur eta ehiza-txakur nahasketa. Hiru hilabete. Interesatuok deitu zenbaki honetara645-70 68 21. Inma.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akordeoia salgai.** 120 baxu, B-14C. Murriztua. Interesatuok deitu zenbaki honetara647-51 52 80

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etik aurrera deitu. Oñatin. 619 81 70 72.

**Aulkia salgai, bizikletan umea eramatekoa.** Bellelli markakoa. Beltza eta horia. Egoera onean dago. Gutxi erabilita. 20 euro. 658-73 35 96.

**Bizikleta salgai.** BH Orion BMX bizikleta salgai. Egoera oso onean eta gutxi erabilita. 125 euro. 94-622 51 75

**Bulegoko** mahai eta altzariak saltzen dira Arrasaten. Izkina egiten duten bi mahai eta zortzi aulki. 400 euro. 607-61 56 37

**Bizikleta salgai.** BH Orion BMX bizikleta salgai. Egoera oso onean eta gutxi erabilita. 125 euro. 94-622 51 75

**Haurrak** eramateko mendiko motxila salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 658-12 43 38

**Hozkailu txikia salgai.** Egokia gazte lokaletarako. Oso egoera onean, 2009ko maiatzean erosia. A klaseko eraginkortasun energetikoa dauka. Balay etxekoa. Prezioa: 300 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653-74 23 17.

**Karabana salgai.** Caravelair bahia 460. 4 pertsonarentzat. Bi ohehandi. 1986koa. Matrikula frantsesa. Abantze eta guzti. Prezio onean. 606-53 53 52

**Karabana salgai.** Adria unica d-391-dk. Ondo zainduta. 636-85 74 43.

**Klarinetea** salgai. Deitu 617 80 87 85 telefonora.

**Karro-denda salgai.** hozkailua opari. Bizikletak eramateko parrilla dauka. Oso egoera onean dago. 615-71 09 13

**Kotxe-kapota.** Hiru gurpileko bebecar kotxe-kapota eta bere aulkia saltzen dira. Egoera oso ona. Urdina. Euriarendako plastikoa. 90 euro. 656-73 54 80

**Koltxoi** berri-berria salgai (estreinatu gabea). 1,90x1,50 m. Pikolin. 619 87 95 57.

**Lowepro primus AW.** Argazki kamera mendira eramateko oso egokia. Gutxi erabilita. Reflex argazki kamera eta zoom objektiboa (70-200 mm-raino) sartzen dira. Gainera, beste bi objektibo edo flasha ere sartu daitezke. Tripodea edo mendiko bastoia eramatekoa du. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 667-95 73 16

**Olympus E-520argazki kamera salgai.** Bi objetibo, bat 14-42mm 1:3.5-5.6 eta bestea,40-150mm1:4-5.6. Horretaz gain, osagai guztiak, bateria, kargadore bat, ordenagailurako kablea eta telebistan argazkiak ikusteko kablea. XD memoria txartel bi bata giga batekoa eta bestea bi gigakoa. Osagai guztiak eramateko poltsa era saltzen dut,Lowepro markakoa . Bertan objetibo biak,memoria txartelak, bateria kargadorea eta dena sartzen da. Tripodea era saltzen dut. Guzti hau 450 eurotan baina beti ere merketu ahal da. 687-56 07 09-Jon

**Paseo aulkia salgai.** Bebe confort markako paseorako aulkia salgai. Horrekin batera kotxearentzako homologatuta dagoen grupo 0, aulki bietako burbujak eta kapotak oparitzen dira. 100 euro. 650-91 48 06

**Pixoihalendako edukiontzia salgai.** Ia berria. 40 euro. 672-25 74 24.

**Ume karroa salgai.** Bebe car multipla markakoa. Urdina. Egoera onean. Maxicosia, kapazoa eta aulkia osagarri guztiekin: euritakoa, plastikoak eta sehaskarentzako osagarriak. 400 euro. 696-96 92 76

**Umea eramateko motxila.** Baby borjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 80 euro. 607-06 22 20

**Umeendako aulkia.** Hiru gurpilekoa. 0 taldekoa. Kapazoa eta aulkia. Poltsa, eguzkitakoa, aterkia jartzekoa eta hiru zaku salgai. Dena egoera onean. 400 euro. 686-11 67 02.

### 802. EROSI

**Inesca dakota** edo antzerako karro-denda erosiko nuke. 696-40 82 19.

### 803. EMAN

**'Pyrenaica',** 'Integral', 'Kezka' eta 'Bike' aldizkari zaharrak ematen dira. 678 56 50 44.

### 806. GALDU

**Argazki kamera.** Maritxu Kajoi egunean argazki kamera galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, deitu zenbaki hauetako batera:. 686 54 74 20 edo 943 53 36 13.

**Betaurrekoak** Aretxabaletan. Graduatutako betaurrekoak galdu nituen irailaren 28an, arratsaldez, Aretxabaletako Araba ibilbidean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. Sarituko da. 943 53 26 16.

**Kirol jertsea** galdu dut Aretxabaletan. Umearena da, Rip Curl etxekoa, urdin kolorekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez:. 639 99 33 34.

**Pultsera galdu Bergaran.** Uztailaren 13an, martitzena, Balio sentimental handikoa da, eta sarituko da. 943-76 03 73

**Mendiko motxila galdu dut** Urriak 9an mendiko motxila galdu nuen Garibaiko autobus geltoki inguruan, bateren batek aurkitu baldin badu deitu mesedez. 677 48 39 17.

**Oñati.** Erroxaixo Bixamon goizean umearen oinetako bat galdu nuen, urdina. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez 695 75 93 77 telefonora.

**Patinetea galdu da** Aretxabaletako Eguzki tabernako plazan. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki hauetara, mesedez: 943 79 58 98 edo 618 49 28 56.

**Patinetea.** Irailaren 21ean Arkupetik 19:00ak eta 20:00ak bitartean nire patinetea hartu zuenak bere lekura buelta dezala, mesedez. Gogoratu Arkupen kamerak daudela. 688 60 26 59.

### 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Ume baten patinetea aurkitu dute. Zurea bada deitu goizez 943 79 86 21 telefono zenbakira.

**Zira** bat aurkitu nuen urriaren 7an trenbidean. Zurea bada, deitu 663 04 35 05 zenbakira.

### 808. BESTELAKOAK

**Eskerrik asko** Espiritu Santuari jasotako mesedeagatik.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** 42 urteko gipuzkoar batek neska erakargarri bat ezagutuko luke,35-41 urte artekoa, ahal dela semea-alabarik gabe, donosti-hernani-oiartzun edo inguruko herri batekoa, laister ere badugu lezon kilometroak eta neskaren bat animatuko baliz.... Ba oso ondo. Nire e-posta hauxe da *bizitzabezala@terra.es*

### 904. BESTELAKOAK

**Aleman mintzapratika.** Aleman hizkuntza ikasten ari naiz. Mintzapraktika egiteko laguna bila nabil. Bidenabar elkartrukatu dezakegu euskaraz edo gaztelaniaz mintzatuz.943-01 41 41

**Euskara-frantsesa.** Hizkuntza elkartrukea egingo nuke. Nik frantsesez moldatzen irakatsiko nizuke eta trukean euskara ikasi nahi nuke. Deitu 602-12 03 47 telefono zenbakira.

